

ANTONIO ZAVALA, S. I.



# TEPAI BERTSOLARIA

**Akilino Izagirre Amenabar (1906-1971)**

JB-960

-10681

# ZEPAI BERTSOLARIA

(Akilino Izagirre Amenabar)

(1906 - 1971)

AUSPOA LIBURUTEGIA

107

---

**COLECCION AUSPOA**

**Administración: Plaza de Santa María, 2 — Tolosa  
(Guipúzcoa-España) Tel. 661612**

**Dirección: Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J. Colegio de  
S. Ignacio. Ategorrieta. — San Sebastián.**

**ORDAINDU BEARRAK:**

**Urte betekoa: 420 pezeta  
Ongilleak: 700 »**

**Atzerrian: 560 pezeta  
Ale bakarra: 50 »**

ANTONIO ZAVALA, S.I.

# ZEPAI BERTSOLARIA

(Akilino Izagirre Amenabar)

(1906 - 1971)

AUSPOA LIBURUTEGIA

1971

© Auspoa Liburutegia  
Tolosa (Guipúzcoa)

Depósito Legal. S. S. 534/71  
IZARRA - Peña y Goñi, 13  
San Sebastián - Octubre 1971

## ARKIBIDEA

Zepai bertsolaria ... ..	9
Zenbait bertso ... ..	20
Puntuan ... ..	39
Zenbait ateraldi ... ..	48
(1932) Bertso Berriak Errezilko baso-muti- llak jarriak ... ..	54
Zenbait txapelketa ... ..	59
Oroipen batzuk, Iñaki Alkain-ek ... ..	71
Donostiako Loiolan (1969/VII/31) ... ..	95
Donostiako Loiolan (1970/VII/31) ... ..	116
Zepai zanari, Arozamena-k ... ..	135

## ZEPAI BERTSOLARIA

Zepai bertsolaria Azpeitiko kalean jaio zan, 1906 urteko Ilbeltzaren 15an, bañan Errezilko Zepai baserrian azi zan. Etxe ontatik zertorkion, beraz, izengoitia.

Izen-deiturak, Akilino Izagirre Amena-bar zituan.

Gazte xamarretik asi zan bertsotan. Amasei edo amazazpi urtetan kantatutako bertso bat, liburu ontan arkituko du irakurleak.

*Bertsolariya* aldizkaria asi ta berealaxe, 8garren zenbakian, 1931/XI/8an, Erreteriko Juan Zabaleta bertsolariak bertso batzuek jarri zituan Zepairentzat. Onek artean ogei ta bost urte zituan, bañan Erreterin bertsolari eza-guna zan. Aitormen au egiten dio Zabaletak:



Etorri bikañeko  
bertsolai zuzena,  
zeñek berdinduko du  
zure almazena?  
Arrituta utzi zuen  
ango jende dena,  
oraingo gaztietan  
zu zaude onena.

Zabaletak dionez, urte t'erdi edo bi inguru zan, alkarrekin saio bat egiña zutela. Ura gogoratuta, Zabaletak nai zuan Zepai ere *Bertsolariya* aldizkarian bertso jartzen astea. Bañan Zepai bertsoak aotik aora kantatzeko jaioa zan, ez ordea paperetan jartzeko.

Andik urte batzutara, 1935 ta 1936 urtean, *Lenengo* ta *Bigarren Bertsolari-eguna* ospatu ziran. Zepaik ere kantatu zuan, eta bietan irugarren gelditu. Orduan Euskalerra guziak ezagutu zuan bertsolari au.

Zepai gaztetan baso-lanean jarduna zan. Bañan gero argin ikasi zuan. Eta argin-lanetan, Txirritak oi zuan bezela, toki ta erri asko korritu zituan: Arantzazu, Legazpia, Idiazabal eta abar eta abar.

Donostiko zerbezerian ere lan egin zuan; bost bat urte egin zuan emen, Uzta-

pide lagun zuala. Antiguako bertsozaleak ondo gogoan dituzte oraindik ere bertsolari auen garai artako bertso-saioak.

Zepai, Agustina Mujika Intxausti-rekin ezkondu zan, 1946 urteko Ilbeltzaren 31an. Andregaiia Ursuarangoa zuan; ballara ori len Segurakoa zan, ta gaurko egunez, berriz, Idiazabalkoa.

Seme bakarra izan zuten, Alejandro, 1946 urteko Azaroaren 15an jaioa.

Urte bereko Apirillean taberna idiki zuten, Etxegarateko aldaparen asieran ezkerretara, kamio ertzean. Basarrik onela dio taberna edo ostatu onezaz:

«Oso ezaguna zan Zepairen etxea: jantoki ona, ostatu ona. Billatzen zuen kamiotako txofer jendeak, eta txofer asko sartzen dan tokia ez da jantoki txarra izaten. Txoferrak jakiten dute ondoen bazter guzietako berri.» (1)

Zepai bertsolari bezela zer izana dan eta bertsolaritzak zerbaiteren zor ba ote dion, onela adierazi du Basarrik berak:

«Gazterik asi zan nabarmentzen bertsolari modura. Urte gutxian oso sonatu egin zan Zepai.

---

(1) *La Voz de España*, 1971/VII/27.

Eztarri indartsua zuen ikaragarri: boza aundiko bertsolaria zan. Garai aietan etzan izaten mikrofonorik eta altabozik. Plaza librean kantatzeko alderdi aundia zan boza garbiaren jabe izatea.

Zepairen zenbait bertso ta Zepairen ateraldi asko, batez ere, nekez aztuko dira.

Erriak ikasi zituen, eta erriak bein ikasten duena, ezpainenetik ezpainenara joaten da zabalduaz. Umorea saltzeko zuen, eta gusto samarreko tokian bildutakoan, benetako pestak egiten genitun arekin.

Amaika parre-algara eder eragiñerazi zidan neri bere denboran. Aiek gozamenak artzen genitun arekin biltzen giñanean!

Txirrita, Gaztelu ta Frantzesia il ziranean, utsune aundi bat izan zan Euskalerrian; bertsolari utsunea, alegia.

Txapel eta Zepai bi koñaduak izan ziran okerra erremeritu zutenak.

Deiak jasotzen asi ziran erri batetik eta bestetik. Joan eta kantatu egiten zuten.

Bertsolaritzak betiko galdu bear zuela zirudien denbora triste aietan, bi gizon aukeratu aiegindu ziran eusten. Etzan itzali su guzia, aueri esker.

Geroxeago lagun Uztapidek eta biok urte asko egin genitun alkarrekin erriz-erri, aien bideari jarraituaz.

Gaur bertsolaritzak ez du itzaltzeko arrixkurik. Egundo baiño ugariago ditugu bertsolariak, eta balio aundikoak ez gutxi.» (2)

Basarrik esan bezela, umore aundiko bertsolaria izan zan Zepai, baita ere zorrotza ta aguroa. Alderdi on guziak etzitan berekin izango, bañan oiek beintzat bai.

Azkeneko urte auetan oso gutxi jarduten zan jendearen aurrean. Erriz-erri kantatzeari utzita zegoan, ta bere ostatu-lanetan txintxo ta xuxen jarduten zan.

Bearbada, Donostiko Loiolan egin zituan jendearen aurrean azkeneko bi saioak. San Inazio egunez urtero etortzen zan ballara ontara, Uztapide ta Arozame-narekin bertsotan egitera. Zorionez, bi saio auek jasotzeko egokiera izan genduan, eta liburu ontan ditu irakurleak.

Urtero omenaldi bat egiten zaio Donostian bertsolari bati. Jose Salaberria jaunak eratzen du. Ta jendeak berak aukeratzen du urrengo urtean zein bertso-

---

(2) *La Voz de España*, egun berean.

lari omendu bear dan. Orain artean Uztapide, Xalbador ta Lasarte izan dira; urrengorako Mattin dago aukeratua.

Nik nere kiko pentsatzen nuan Mattin-en urrengoa edo, Zepai izango zala. Ondo merezia zuan aitormen ori Euskalerriarengandik, eta ala egingo zitzaiola ez nuan dudik egiten. Ta Zepairen bertso-liburua ordurako egitea pentsatzen nuan. Ain zarra ere etzan: 64 urte. Bañan erioak aurrea artu digu danori, bai jende aukeratzalleari, bai omenaldi antolatzalleari ta bai liburua prestatu bear zion oni ere.

Txapel zanarekin ere gauza bera gertatu zitzaidan. Beste abixu bat, beraz, bertso-biltze au presakako lana dala...

Ala ere Zepairen libururako lan geiago egiña neukan: Loiolako bi saio oiek, aotik aorako bertso asko ta zenbait ateraldi ere bai, nere karpitetara sartuta zeuden.

Ortaz gañera, orain baño len ere argitaratuak ditugu Zepairen bertso batzuk: Auspoa 18-19, 227 orri-aldetik; Auspoa, 42, 131 orri-aldetik, Auspoa 67, 21 ta 69 orri-aldeetan; ta Auspoa 92, 91 garrenean.

Zepai bertsolaria Santiago bezperan, 1971/VII/24an alegia, joan zitzaigun, gi-

beleko gaitz txar batek jota. Ez det uste gaitz luzerik izan zuanik.

Beintzat, olakorik ezertxo ere uste ez nuana, Santiago goizean Errenterian nintzan, egun artako bertso-saioa lasai asko entzuten, eta ura zirrara bukaeran Gorrotxategik bertso au kantatu zuanean:

Danok eskertuz buka  
nai det bertso-lana,  
berri triste bat eldu  
zaigu guregana:  
Zepai bertsolaria  
da mundutik juana;  
euskaldun bezela au  
eskatzen detana:  
bere animan alde  
otoi bero bana!

Ta arratsaldeko seiretan illeta izan zan. Andik bi egunera onela zion Basarrik periodikoan:

«Arrigarrizko jendetza Idiazabal-go eliz nagusian. Alde guzietako bertsozale zintzoak an bildu zirala esan bear. Zenbat aurpegi ezagun! Zenbat tokitako jendea gero!

Ildakoaren illoba, D. Migel Eizmendi,

Txapel bertsolari zanaren semea, meza-  
-emale.

Meza santua eskeintzeko denboran,  
bederatzi bertsolari igo ziran aldarera,  
ta bakoitzak bertso bana kantatu.

Negarrez eliz barruko kristauak Nola  
ez!» (3)

Izan ere gorputzaren aurre-aurretikan  
kantatu zuten. Eliza bete-beterik zegoan,  
bañan an etzan txintik ere aditzen, ber-  
tsolarien kantua izan ezik. Tristuraz be-  
tetakoa, noski, azken agur ura, bañan  
bai ederra ere! Olako gizonari zegokion  
neurrikoa, esango nuke.

Onako bertso auek kantatu zituzten:

Jose Lizaso-k:

Euskalerria etzan  
gaur goizean alai,  
ez geiegi illundu,  
arreba ta anai:  
Pixtuko ote gera?  
Sinisten duna bai!  
Laister gera gu ere,  
egon zaitia zai;  
egun aundira arte  
agur, lagun Zepai!

---

(3) *La Voz de España*, 1971/VII/27.

Uztapidek:

Akelino, lagunak  
giñaden munduan,  
amaika alaitasun  
igaro genduan,  
oraindiokan ere  
daduzkat goguan;  
eskari auxen diot  
nik otoitz-moduan:  
emen il dana pixtu  
dedilla zeruan!

Jose Agirre-k:

Gure Akelino gaur illa dago,  
bizi genduan lenago;  
makiña batek jokatuko zun  
arek baño okerrago;  
deskoidatzia baleike baña  
seguru-seguru nago  
zeruko aingeruk gaur badutela  
beste lagun bat geiago.

Etxeberria-k:

Ai, Akelino biotzekua,  
or zaude zu ill-otzian,  
nere biotza dardaraz jarri  
zu il zerala aitzian.  
Zer ustrasuna utzi dezuen  
Euskalerrien ertzian!  
Aber alkarri esku ematen  
dioun zeruan sartzian!



Batista Kortajarena-k:

Ai, Akelino, au bota gabe  
orain ez dizut utziko:  
mundu ontako gure izaera  
degu denbora gutxiko,  
orain bistatik bazuaz eta  
geio etzaitut ikusiko,  
arren zerura jun zaitezela  
eternidade guziko!

Lazkao-Txikik:

Nere agur bat Zepai lagunai  
eman nairik azkenean,  
il zaigulako, berriro ere  
pizteko itxaropenean;  
aitzaki edo pekatuen bat  
bazun eriotzako unean,  
barkatu eta artzazu, Jauna,  
zeorren aldamenean.

Imanol Lazkano-k:

Gizon guziak illunak gera  
eriotzako orduan,  
bañan bakoitzak badaki berak  
iltzea nola zor duan;  
geienaz ere iru edo lau  
egun dauzkagu munduan,  
ta, Akelino, berriz ere aurki  
gera alkarren onduan.

Basarrik:

Ai, zure kantuz alaitu zendun  
makiña bat lagunarte,  
zure ezpañak, Zepai maitia,  
azkena kantatu dute;  
zure ordua iritxi da ta  
guria ez da aparte,  
lagun maitia, agur da agur,  
agur egun aundira arte!

Mitxelena-k:

Ai, Akelino, erri guztia  
zuri laguntzen emen da,  
eriotzeko il bear ori  
ain tristea izaten da;  
zeru eder bat au utzi eta  
ondorenian omen da,  
zu ere antxen izan zaitela  
jendea akordatzen da.

Jai-eguna baitzan, bertsolari asko ta  
asko an da emen bertsotan ziran; orre-  
gatik erdiak baño geiagok ezin etorria  
izan zuten.

Goian bego Zepai bertsolari zana!

A. Z.

## ZENBAIT BERTSO

Zepaik, amasei-amazazpi bat urte zitu-  
tuala, Azpeitiko Loiolako Aizpuru base-  
rrian denbora-aldi bat igaro zuan. Ta  
arbi-ostroa biltzen ari zan egun batean,  
or azaltzen zaizkio Azpeitiko eiztari ba-  
tzuk, zazpi bat zakurrekin, zalapartan,  
eta onela galdetzen diote:

—I, gazte, erbirik ikusi al dek?

Ta Zepaik bertso onekin erantzun zien:

Erbiyak irten dizute  
beko pendizetik,  
bera aurrian jua da,  
zakurak atzetik;  
zazpi tiro tira ta  
ala ere zutik,  
mendi gañian gora  
ankak jaso zetik. (1)

\* \* \*

---

(1) Bertso au Zepaik berak emana degu.

Bañan Txirritarena bezela ematen da Auspoa-ren  
18-19'garrenean, 188 orri-aldean.

Ta Auspoa-ren 95-96'garrenean, 83 orri-aldean,  
Azkoitiko Diyo Otsolarre-rena dala esaten da.

Zepai baso-lanean ari z a n kuadrilla batekin. Egun batean ikazkin batek ardia nola arrapatzen zuan ikusi zuten. Gero, alkar topo egin zutenean, bertso au kantatu zion Zepaik:

Enuen uste zu're  
ola ziñanikan,  
oraiñ ezta zuretzat  
bire berdiñikan;  
estrapuzu galanta  
baezu egiñikan,  
ostu dezun ardiya  
jaso eziñikan. (2)

\* \* \*

Artzai bati mendian kantatua:

Arrapatua zera  
bakiña bat larre,  
eta kontari dago  
eztala ezerre;

---

Aiako Olaberri baserrian jaio ta gaur Erreteriko Zelaitxo-n bizi dan Agustin Lertxundi-k beste one-la eman digu bertso au bera:

Neonek ikusiyak — natorren biretik;  
erbiya aurrian da — txakurrak atzetik,  
eiztariyak tiroka — baño urrutitik,  
mendiyak betik gora — anakak jaso zetik.

(2) Zepairi jaso.

an eztezu egingo  
emen aña parre,  
pâtu baño naio du  
inpernuan erre. (3)

\* \* \*

Azketa Errezil'ko mutilzar bat zan.  
Bertsotan pixka bat ere egiten zuan.  
Egun batez, bertso au bota zion Zepaik:

Edozer gauza esaten du orrek  
jartzen bazaio kasketan,  
Afrika'ko moruak aña  
oraindik eztaki izketan;  
errespeto geio ezpadaukazu  
zere erriko pestetan,  
plazara geio atera gabe  
egon zindezke Azketa'n. (4)

\* \* \*

Zaldibiko amerikano bati kantatutako  
bertso pareá:

Animaliya besterik  
eztan basuetan,

---

(3) Zepairi jasoá.

(4) Zepairi jasoá.

neke galantak egiñaz  
beren besuetan,  
errira bajatu gabe  
urte osuetan,  
ez gu emen bezela  
beti bertsuetan.

Balore aundiya dute  
ardi ta beietan,  
kilometruak asko  
diran mendiyetan,  
mezikan entzun gabe  
dabiltza jaietan...  
Neuk enuke bizi nai  
alderdi aietan! (5)

\* \* \*

Bein batez, republika baño lenago, Txapel ta Zepai bertsotan ziran Azpeitiko Loiolan. Ta kantuan ari-ari zirala, bertso pare au bota zuan Zepaik:

Euskalerritik neskatxa asko  
kanpo-erritara igesi,  
ara juanda kastillanuz  
aguro tratatzen asi;  
andikan laster etortzen dira  
beren nobiyo ta guzi,

---

(5) Zepairi jaso.

belarrimotzen fundamendiya  
ortik sortu zan lenbizi.

Kastillano asko argatik dabil  
Euskalerriko partian,  
zar eta gazte emen dabilta  
danak naspilla batian;  
enganiyua sartzen ai dira  
gazteriyen biyotzian,  
euskaldun neskak, argi ibilli  
oik ola'abiltzan artian. (6)

\* \* \*

«Bertso au Oiartzunen guda aurretik  
abestua Txirrita eta Zepai bertsolariak.

Egun artan Oiartzunen aizkolariak  
omen ziran. Ez dakigu apostua ala ager-  
keta izan zan. Eta aiek ikustera-edo eto-  
rria omen zan Uzkudun-dar Paulino, ga-  
rai artan oso izen aundikoa.

Ori jakiñik, Txirritak, bera gorald  
naiaz, bertsoa abestu omen zuen, eta ber-  
tsoaren amaiera au izan omen zan:

---

(6) Lenengo bertsoa, Zepaik berak emana; biga-  
rrena, Aiako Olaberri baserrian jaio ta gaur Erren-  
teriko Zelaitxo-n bizi dan Agustin Lertxundi-k ema-  
na.

baldin plaza ontan arkitzen bada  
altxa dezala besua.

Uzkudun-engatik noski. Eta Zepaik ondorenean au erantzun:

Ez da posible ondo neurtzia  
Uzkudun orren kemenak,  
orain artian bentzutu ditu  
azaldu diran geienak.  
Jakiñan gañin jartzera nua  
lenago etzekitenak:  
gure errian jaiotzen dira  
orlako asta-kirtenak». (7)

\* \* \*

Bertso au ere or nunbait Zepaik kantatua da:

Nere denboran ez naiz egondu  
kantatutzeko bildurrez,  
nere bertsoa aditutuzian  
jarriko zerate parrez:  
etxera in da andria erritan,  
ume txikiak negarrez...

---

(7) Argitasunak eta bertsoa: Dionisio Mitxelena, Oiartzun. Onek Oiartzungo Borkondo baserrian jaio ta gaur Arragua auzoan bizi dan Leontzio San Sebastin-en aotik jaso ditu.



Gauz oiek danak pentsatu eta  
etziok ezkontzen errez! (8)

\* \* \*

Errezilko baserritar bat, izugarrizko  
artalekuak eta abar zituala esaten ari  
zan. Orduan bertso au kantatu zion Ze-  
paik:

Danak beteta dauzkat  
ganbara ta borda,  
anea pasakoak  
eunen bat korda,  
etxeratzeko're oraindik  
beste puska't or da,  
olako nekazarie  
Errezillen nor da? (9)

\* \* \*

Bein batez, Ernanin, bertsoan ari zi-  
ran Zepai ta beste bertsolari bat. Nola-  
bait ere bertsoa bukatu bear ta beste  
orrek alua esan zion Zepairi. Au sentitu-  
ta jarri zan, ta bertso onekin erantzun  
zion:

---

(8) Sebastian Salaberria, Oriamendi, Aiete, Do-  
nostia.

(9) Bizente Mujika, Etxaburu, Ormaiztegi.

Umildadia urruti eta  
errespetua atzian,  
edozein gauza esaten degu  
txoro-aiziak jotzian;  
len esan dezun arrazoi orrek  
pena eman dit biyotzian...  
Alurik eztu berriz esango  
jotzen badet kokotzian! (10)

\* \* \*

Zepaik Donostian San Tomasetan:

Errespetuan kantatu zugun  
tokatutzen dan modura,  
bata bestiak istimatzeke  
sortu giñaden mundura;  
nei pentsamentu txarrikan etzat  
beñe etortzen burura:  
Santo Tomasi eskatzen diot  
sartu gaitzala zerura. (11)

\* \* \*

Bein batez Igeldon kantatua:

Nik banuan anai bat  
gerra ortan illa

---

(10) Anton Kortajarena. Zizurkil.

(11) Pello Saikola bertsolaria, Zestua.

ta berakin badira  
makiña bat milla;  
ez anaia zalako,  
ura zan mutilla!  
Deseo det zeruan  
gertatu dedilla. (12)

\* \* \*

Gosetearen garaian, 1941 edo 1942 urtean alegia, ematen zuten ogi-puska ere ain beltza ta itxusia zanean, bertso au kantatu omen zuan Zepaik, erri-pesta batzutan:

Dударик gabe gaurko onetan  
nêtzat dator erasua,  
bañan nik laister garbituko det  
emen dijuan kasua:  
juxtu-juxtuan ematen dute  
azienda oiek pausua,  
ez al dakizue guk jaten deula  
oik biar zuten pentsua? (13)

\* \* \*

«Danok dakigu guda ondoren gosete aundia izan zala. Garai artan bizi zan

---

(12) Balentin Zamora, Leku-eder, Igeldo.

(13) Pio Retegi, Arane, Oiartzun.

Oiartzunen gaztetan palankaria izandako gizona, Esnaola. Onek palanka batzuek bota omen zituen *Beko Plazan*, eta lendarbizikoak, an dagon nesken eskolako teillatuan erori eta teilla asko apurtu omen zitun.

Ondoren bertsolariak, eta aietako bat Zepai. Asi omen ziran batak bat eta besteak bestea, eta onek bertso au abestu:

Ez da posible ondo neurtzia  
gizona orren indarrik,  
zenbaitentzako ez da izaten  
ezerik eta igarrik;  
oraingo aldian ez dala baiña  
jaten txuleta ederrik,  
emengo teillatuk austeko ez da  
areoplanuen bearrik». (14)

\* \* \*

Oiartzunen bein batez kantatua:

Mutil koskorra nitzan artian  
ikasi nuen dotriña,  
geroztikan au serbitutzen  
saiatzen naiz alegiña;

---

(14) Argitasunak eta bertsoa: Oiartzungo Dionisio Mitxelenak, Leontzio San Sebastian jaunari jasota.

ara emen nun sortu leiteken  
gañera euskaldun fiña,  
obe genduke emen orrela  
beti biziko bagiña. (15)

\* \* \*

«Oraingo au bertso-saioaren aseran  
kantatu zuan, jendea mar-mar edo ots  
aundian izketan ari zala ikustean. Nun  
ez nago seguru, baño ni an nintzan en-  
tzuten:

Bertso-lanian asi gaitezen  
orain poliki-poliki,  
gu zertarako etorri geran  
jende guztiak badaki;  
bertsuak entzun nai dituen  
bozez ez dedilla jeiki,  
euskaldun fiñik badago beintzat  
atentzioa eduki». (16)

\* \* \*

Bertso au Zepaik Oiartzungo Gurutze'n  
kantatua da, ballara ontara Uztapide ta  
biak bertso-tara etorri ziran batean:

---

(15) Pio Retegi, Arane, Oiartzun.

(16) Aurreko adierazpena ta bertsoa, bere izena  
agertzerik nai ez duan goierritar batek idatzia.

Donosti'ko *Zarauztarra*'tik atera (17)  
eta arturik taxisa,  
martxa orretan uste nuen nik  
juango giñala Parisa;  
batere ankik nekatu gabe  
Oyartzun'año ain aisa,  
sonbrerorikan ez degu baña  
gabiltz markesaren gisa. (18)

\* \* \*

Zepai ezkondua ta Uztapide mutilzarra  
ziralarik, alkarri botiak:

Zepaik:

Biyok batian ezkonduzkeko  
atera gendun sistima,  
nik emandako arrazoyikan  
orrek etzuen istima;  
bera dalako galdu biaitu  
gorputza eta anima,  
salba leikela kondenatzia  
ez al da gauza lastima?

Uztapidek:

Il ondorean joko'izkigute  
erremateko kanpanak,

---

(17) *Zarauztarra* Donosti'ko taberna bat da.

(18) Pio Retegi, Arane baserria, Ugaldetxo, Oiar-  
tzun.

andik aurrera mundu onetan  
ditugu ordu bakanak;  
gauz guztik zuzen kunplitu eta  
joaten ote dira danak?  
Uztapideri pakian utzi,  
zeurekin dauzkazu lanak. (19)

\* \* \*

Zepaik Uztapideri Ereñozu'n:

Aizu, Uztapide, galdezka negon  
aspaldi ontan nun ziñan,  
alkar ikusi gabetandikan  
nola baigeunden antziñan;  
ni bazterrera utzi ninduzun,  
Basarringana jun ziñan...  
Garai artan zu ni nitzan baño  
askoz ohea etziñan. (20)

\* \* \*

Uztapideri bein batez kantatua:

Onek Oiartzun'en dauka  
bizi dan kaiola;

---

(19) Antton Cortajarena, Zizurkil.

(20) Pablo Zubiarrain, "Ernani-Txikia" bertsolaria, Ernani.

andria ikusi det  
malkua daiola,  
onekiñ esposatua  
damutu zaiola...  
Arantzazu'ko Amak  
lagundu deiola! (21)

\* \* \*

Itxasondo-n bein batez kantatua, Basarri ta Uztapide ere an zirala:

Jende askok egiten  
die molestia,  
pena artutzen det nik  
ori sinistia;  
Basarri ta Uztapide,  
bata ta bestia,  
nêkin asitakoan  
geiago ezta. (22)

\* \* \*

Ormaiztegi-n Txapel bertsolariari kantatu ziona:

.....  
.....

---

(21) Zepairi jaso.

(22) Julian Albizu, Arriaran, Beasain.



komeniko da entzule danak  
abertentzian jartzia:  
oni gustatu izango zaio  
emen dagoan eltzia,  
errez etorri egin da baña  
kostako da bialtzia. (23)

\* \* \*

Lazkao-Txikiren galdeera Idiazabal-en  
adiskide bati:

—Ta, Zepai nun dek?

—Zepai erreumarekin zebillek!

Ta Lazkao-Txikik ostera:

—Erreumarekin baldin badabil, etziok  
kuidadorik; erreumarekin egotea dek txar-  
rena!

Gero, alkarrekin juntatu ta bertsoan  
ari zirala, bukaera onela zuan bertsoa  
kantatu zion Lazkao-Txikik Zepairi:

erreuma daukala ta  
egiten du erren,  
mostradorian lana  
ez egitearren.

Bañan ordañak ere izaten zituan Laz-

---

(23) Bizente Mujika, Etxaburu, Ormaiztegi.

kao-Txikik. Zepaik onela kantatu zion  
bein batez; ontan ere bertsoaren erdia:

elizatikan aparte zabiltz  
erlijioan igesi,  
zu bezelako alprojak eztu  
emazterikan merezi. (24)

\* \* \*

«Beste au Mitxelena-ri kantatu omen  
zion. Ildako bati buruz kantatzen ari  
omen ziran biak, eta Mitxelenak oso men-  
dean omen zeukan Zepai, aurrea artu zio-  
lako. Kosta omen zitzaion gaña artzea  
arrats artan. Neronek entzuna da Zepai-  
ri. Bañan bertso onekin artu omen zion.  
Ta esaten zuan Zepaik, eroriaz oñez ikas-  
ten zala, eta bertsotan ere muturrekoak  
artzen.

Bertsoa:

Erabaki bearra daukagu  
gure arteko auzia,  
gaztetatikan nago dotriña  
oso ondo ikasia:  
ildakoari jarri leioke  
beregán berriz bizia,

---

(24) Bizente Mujika, Etxaburu, Ormaiztegi.

gure Jainkoak dezakelako  
berak nai duen guzia.» (25)

\* \* \*

Eskuz idatzitako kuaderno batetik ar-  
tuak; ez nuan apuntatu zeñi jàso nion  
kuaderno ori:

Basarrik:

Ixkiñan jarri kordela eta  
oker berrogei aldetâ,  
lana egiteko gizonak bear  
pixka bateko arreta;  
ikuste'ituzun nagusi jaunak  
daude asarrez beteta,  
bartarratsian eroi dalako  
zure atzeko pareta.

Uztapidek:

Porlanan billa goizian juan,  
allegatu da berandu,  
orregatikan nere paretak  
mortero txarra izan du;  
zerbait esaten asi ezkeroz  
kopeta beltza jartzen du,  
naiago nuan duro bat bañan  
azpian artu bazindu!

---

(25) Aurreko adierazpena ta bertsoa: Jose Ma-  
ria Etxaluze, Idiazabal.

## Zepaik:

Arrazoi orri aldamenetik  
eldu bear diyot nik rau,  
lenago ere tripako miñak  
pasa izan det zenbait gau;  
sei eun lanian aritu eta  
abonatzen dizkigu lau,  
pioiak bañan lenagotikan  
despatxatu bear da au.

\* \* \*

Beste era ontara ere bai. Eskuz idatzitako paper-punta batetik ditugu. Ez naiz oroitzen paper-punta ori zeñek emana detan:

## Basarrik:

Kordela jarri kantoyian da  
oker berrogei aldetâ,  
obra onikan ezin atera  
zu argiñ txarra zera-ta;  
zerbait esaten asi ezker  
bezten du, berriz, kopeta,  
aiziak atzo an bota zuben  
zuk egindako pareta.

### Uztapidek:

Oker dagoen gauza ez dezu  
askotan egin zuzendu,  
porlanan billa goizian baña  
gero etorri berandu;  
orretxengatik nere paretak  
mortero txarra izan du,  
duro bat baño naiago nuben  
azpiyan artu bazindu!

### Zepaik:

Bein nonbait edo ala bear da  
juntatu ziñan gugana,  
ta bidaldu nai egin ezkeru  
ez daukat denbora joana,  
lana gaizki egin ta pagatu bear  
nagusiyak oi du pena,  
beangatikan bialdutzeko  
artuta nago ordena.

### Uztapidek:

Neri palluak billatziarren  
gezurra esaten dezu rau,  
aspalditxo ontan tripako miñez  
badaramazkit zenbait gau;  
sei egunian lana eginda  
apuntatutzen dizkit lau,  
argiña baña lenagotikan  
despatxatu bear da au.

## PUNTUAN

Errezilko taberna batean, puntu au  
jarri zion bein batez Loidisaletxe bertso-  
lariak Zepairi:

Ardiak goiz ateratzen  
ditut nik arteitik...

Ta Zepaik:

Artzaia izango zera  
zere jatorritik;  
ujuka ta orruaz  
beti urrutitik,  
baña nekez bialdu  
bestên barrutitik. (1)

\* \* \*

1950 urtean, Donostian, *Frontón Gros-*  
*en* kantatua:

Basarrik:

Zenbat angularekin  
naikua zenduke?

---

(1) Ez nuan apuntatu zeñi jaso nion.

Zepaik:

Ori karkulatzerik  
ez daukagu guk e;  
ortarako bear da  
markes edo duke,  
iñork eman ezkeru  
berak jango luke. (2)

\* \* \*

Onako au, aurrekoaren antzekoa:

Basarrik:

Akilino, bixigua  
jango al zenduke?

Zepaik:

Baita ere oso pozik  
presto balegoke;  
zuk ere, izan arren  
markes edo duke,  
nik emango banizu  
artuko zenduke. (3)

\* \* \*

---

(2) Kristino Arruti Lertxundi, Errikotxia bertso-  
lariaren billoba, Andu baserria, Orio.

(3) Balentin Zamora, Leku-eder, Igeldo, Donos-  
tia.

Bein batez, puntu au jarri zioten Zepairi Azpeitin:

Gaztaia merke al dago  
Idiazabal ortan?

Ta erantzuna:

Preziyo baju ori  
beti gerokotan;  
bañan an ere artzaiak  
etzebiltzek lotan,  
asko pagatu biar  
ona jatekotan. (4)

\* \* \*

Berastegi-n kantatua:

Uztapidek:

Onek ez dik asko falta  
oraintxe iltzeko!

Azkoitik:

Zer alderdia dauka  
mundun ibiltzeko?

---

(4) Zepairi jaso.

Azpeitiko Loiolako Errementeri'ko Inazio Zubizarreta'k beste onela eman zigun bertso au bera:

Gaztak diru eiten al du Idiazabal ortan?  
Askok eramaten dute gero ordaintzekotan;  
bañan artzaiak ere beti ez daude lotan,  
ondo pagatu bear ona jatekotan.



Basarrik:

Zein da boluntario  
zuluan sartzeko?

Zepaik:

Ni preparatuko naiz  
buruan jotzeko! (5)

\* \* \*

Basarri, Uztapide, Zepai ta Txapel Az-  
peitin, Santo Tomasetan:

Basarrik:

Gaur goizian sentitu  
al dezute otzik?

Uztapidek:

Nik ez det sentitu ta  
oso nago pozik.

Zepaik:

Egia esateko  
eztu biar lotsik,

Txapelek:

Sekula eztet ikusi  
olako izotzik. (6)

\* \* \*

---

(5) Bizente Agirre, Etxezarreta, Ibarra.

(6) Matias Otermin, *La Atalloarra*, Atallo.

Oraingo auek Isasondon kantatuak dirala entzun izan det. Basarri ta biak ziran:

*Bas.:* Ibilli al zera beñe areoplanuan?

*Zep.:* Ez naiz ibilli baño asmua banuan.

*Bas.:* Zu ibilliko ziñala nik pentsatzen nuan.

*Zep.:* Asko eroitzen dira ta ezin leike juan.

Lizar-adarrez apaindua zegon kantatzeko tokia:

*Bas.:* Toki au apainduta daukagu lizarrez...

*Zep.:* Olako zerbait egin bear zuten aurrez.

*Bas.:* Ementxe egiten da bertsuetan errez...

*Zep.:* Alare obetago zigarroa errez. (7)

---

(7) Basarriri eskeñiaz.

*Zep.:* Garai ona da orain  
erretzeko bana...

*Bas.:* Au moldatutzen ere  
badet naiko lana!

*Zep.:* Aiba papela ere  
ta gañera ona!

*Bas.:* Ori ere da atzo  
neronek emana. (8)

\* \* \*

Onako auek orain ogei ta bost bat urte  
Isasondon kantatuak dira. Aldi artan Ba-  
sarri zan puntu jartzalle:

*Bas.:* Zeuri jartze'izut, Zepai,  
lenengo puntua...

*Zep.:* Ortaz ni izango naiz  
ziaro tontua;  
orrentzako baneuken  
buelta prontua:  
nundik sortu zera zu  
olako santua?

*Bas.:* Gaiztua banitzan e  
ein nazu santutu...

---

(8) Bere izena agertzerik nai ez duan goierritar  
batek idatzi ta bialiak.

*Zep.:* Basarri, zuretzako  
gaizki ez det kantatu;  
egon zindezkela  
uste det kontentu,  
neu zer izango naizen  
zeuk ere pentsatu.

Urrena, Uztapideren txanda izan zan:

*Bas.:* Abendua diagu  
ollagorren illa...

*Uzt.:* Gaur goizean alegiñak  
egin ditut billa,  
etxera eraman e bai  
bosteunetik milla,  
arrapatu ez duana  
or konpon dedilla!

Ta ostera Zepairen txanda eldu zanean:

*Bas.:* Ollagor asko omen dik  
etxera ekarri...

*Zep.:* Zakurraren atzetik  
ibilli da larri;  
ollagorra ikusi  
aurren gorri-gorri,  
tiroa tirau bañan  
aurrera aiek korri! (9)

\* \* \*

---

(9) Julian Albizu, Arriaran, Beasain.

*Bas.:* Zepai, soltero zaude  
andregayik ez-ta...

*Zep.:* Oi ta zazpi urte dauzkat,  
oraindik garaiz-ta;  
nai dirana badakat  
koñataren aizpa;  
egon zaitia lasai,  
ezkonduko naiz-ta. (10)

\* \* \*

Apaiz batek Zepairi puntua:

Zuek parrandan eta  
gu berriz elizan...

Obra onak egiña  
damurik ez izan;

---

(10) Bautista Zumeta, Txokoalde, San Esteban,  
Usurbil.

Beste onela ere jaso izan det bertso au bera:  
Akilino, ezkontzeko iderikan ezta?  
Oi ta zortzi urte eta oraindikan goiz-ta;  
andregaiia ona guretzako gaitz-ta,  
utzi nazu pakian ezkonduko naiz-ta.  
(Balentin Zamora, Leku-eder, Igeldo).

Onezkero, Zepai, ezkontzea gaitz-ta...  
Ogei ta zazpi urtekin oraindik garaiz-ta;  
etxean ortxen dago koñataren aizpa,  
ez apuratu, jaunak, ezkonduko naiz-ta.  
(Iñixio Mari Asteasueinzarra, Ernani).

Jesukristo're leno  
mundun ibilli zan,  
gu salbatziagatik  
gurutzian il zan. (11)

---

(11) Zepairi jaso.

Beste onela ere jaso izan det bertso au:  
Zuek parrandan eta gu berriz elizan...  
Ondo indako lanaren damurik ez izan;  
badakigu Jesukristo nola ibilli zan,  
zuek salbatziatik gurutzian il zan.  
(Manuel Elizegi, Asteasu).

Ejenplo onak dituzte apaizak elizan...  
Obra onak egiña ez damurik izan;  
Jesus maitea're len mundun ibilli zan,  
gu salbatziagatik gurutzian il zan.  
(Julian Buenetxea, Zugazti-aundi, Arrua, Zestua).

## ZENBAIT ATERALDI

Errezillen-edo, auzo-lanean ari ziran, bide bat konpontzearren. Danetan gazteena, Zepai. Orregatik, bera bialdu zuten ur billa.

Iturria urruti xamar zegoan. «Ama Birjiñ iturri» esaten zaien oietakoa zan. Ur presko ederra ematen zuan, bañan ia-ia tantoka.

Ala, denbora asko xamar pasa zuan Zepaik joan-etorria egiten. Bueltakoan erritan eraso zioten lagunak:

—Arraioa! Allegatu al aiz, motell? Badek ordu! Zertan pasa dek denbora?

Ta Zepai ixil-ixilik...

Umore txarra pasa zitzaientean, aietako batek onela esan zion adarra jotzeagatik:

—Ta, urik gelditu al dek?

Ta Zepaik:

—Ez, badijoa! (1)

\* \* \*

---

(1) Sebastian Salaberria, Aiete, Donostia.

«Bein, erri batean, Zepai taberna xar batean zegoan; edo, obeto esateko, lurrean paper xarrak, eskoba, beste pertzen bat eta abar zeuden tokian zegoan.

Batek galdetu zuan:

—Komuna nun ote dago emen?

Zepai bueltatu zan da:

—Ez da billatzen erreza egongo! Danak ere onek komun-tankera baduta!» (2)

\* \* \*

«Txantxangorria zeukan bere etxean kaiolan. Eta batek esan zion:

—Eosiko dizut!

Zepaik:

—Bai, bai, ori eosteko eztago eltze aundi bearrik!»

\* \* \*

Itxaso-Legorreko emakume batek, bere errira joateko autobusa nun zegoan

---

(2) Gertaera au, ta urrengoa ere bai, izena agertzerik nai ez duan goierriar batek idatzi ta bialiak.



jakin nairik, au galdetu omen zion Zepairi:

—Aizu, gizon, ba al dakizu nun dagoen Itxasorako autobusa?

Eta Zepaik erantzuna:

—Bai, Pasaiko portuan. (3)

\* \* \*

Idiazabal-ko bere ostatuaren atean onela esaten zan:

*On parle français.*

Ori irakurrita, onela galdetu zion lagun batek, oso arrituta:

—Aizu, Akilino: emen zeñek egiten du frantzesez?

Ta Zepaik:

—Emen frantzesez? Sartzen diran frantzes guziak dotore asko!

Azkeneko urte auetan kenduta zegoan idazki ori.

\* \* \*

---

(3) Jose Maria Etxaluze, Idiazabal.

Ostatu ortan, komuneko atean, onela esaten da letra aundi-ederrez:

Egin zak lasai!

\* \* \*

Bein batez usotara joan zan. Buelta-koan, gerritik zintzilik uso bakarra zekarren.

Batek onela galdetu zion:

—Uso asko pasa al da?

Ta Zepaik, usua altxatuz:

—Au ez beste danak!

\* \* \*

Egun batez, Idiazabalko ostatuan, nes-kamea eskoba ezin billaturik zebillen. Onela zion:

—Bañan, eskoba nun da?

Ta Zepaik onela erantzun zion:

—Eskoba nun egongo den, ba? Kirte-  
nean! (4)

\* \* \*

---

(4) Balentin Zamora, Igeldo.

Adiskide batek, Idiazabaldik pasatzean, gelditu ta Zepairen ostatuan sartu-atera bat egiteko oitura zuan.

Aldi batez, sartu ta emaztea ikusi du. Onela dio:

—Ta, senarra nun da, etxekoandre?

—Lanean da, bañan segituan etorriko da!

Zepai etorritakoan, adiskide orrek:

—Bañan lanean ari al ziñan, Akilino? Lana, gizona, tontoak bakarrik egiten dute!

Ta Zepaik:

—Bai, arrazoi dezu! Lana gauza ona balitzake, apaizak eta guardizibillak egingo luteke! (5)

\* \* \*

Onako ateraldi au, zortzi egun il aurretikakoa da. Eriotza arte umorea galdu gabeko gizona izan zan, beraz, Zepai.

Gaixorik baitzegoan, illoba bat bixita egitera etorri zitzaion. Izketan ari zirala, onela esan zuan illoba orrek:

---

(5) Adiskide orrek berak kontatua. Ez du bere izenik agertu nai.

—Lengoan Tolosan ikusi nituan Zepai-ko osaba-izebak, zardadea irixten.

Zartzaroari ez-ezik, zar-erretiroari ere zardadea esaten zaio.

Ta Zepaik onela erantzun zion:

—Urrena ikusten dituzunean, nere partetik esan zardadea irixteko Tolosara joan bearrik ez dutela; zardadea len ere iritxita daukatela. (6)

---

(6) Migel Eizmendi apaiz jauna, Txapelen semea, Zepairen iloba.

(1932)  
BERTSO BERRIAK  
ERREZILKO BASO-MUTILLAK  
JARRIAK

Bertso auetan ezta egillearen izenik salatzen. Bañan Zepai izan zan jartzallea. Ala esan zigun Zepaik berak.

Errezilko baso-mutil batzuk Beizamara joan ziran baso-lanera, bañan, ara iri-txita, baso-zaleak lana ukatu egin zien, tratorik etzala egin esanaz.

Mutillak atzera Errezilla etorri bear izan zuten, bañan Zepaigana joan ta bertso auek jarri-arazi zizkioten.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Errezilko Loita-azpiko baserritik jaso genduan.

Errenteriko *Bertsolariya* aldizkarian ere agertu ziran, 1932/VIII/14'an.

- 1/ Milla pasata beratzi eun da  
oe ta amabigarren urtera,  
komeni da-ta abiatu naiz  
bertso berriak jartzera;  
egun batian sartu giñaren  
kristau gaiztuan tartera, (1)  
zeiñ aldetatik aldatu dezun  
ondo kontuak atera.
- 2/ Zerbait esaten aстера nua  
gutzizko borondatian,  
ez det pentsatzen izengo danik  
askorentzako kaltian;  
endregatubak jarri gaituzte  
bizi giñanak pakian,  
baso-tratu bat izan dalako  
Beizemako partian.
- 3/ Telefonua Beizematikan  
jo zuen gure errira,  
baso-tratuba zerratutzeko  
etzuen asko kupira;  
mejora danak bêtzat nai ditu. (2)  
galerak berriz erdira,  
lenago tonto zeuden txoriak  
ederki argitu dira.

---

(1) Bertso-paperean: *gaiztuaren*.

(2) Bertso-paperean: *beretzat*.

4/ Baso-tratuba egiñ genduan,  
orain ukatu egin du,  
len etzekien bakiña batek  
gauza ori're jakin du;  
sobratzen bazan pagatzekotan  
atzera zigun agindu,  
toki onian gelditzen giñan  
lanikan egin bagendu!

5/ Basuarekin orrek ein digu (3)  
ikaragarritzko burla,  
pentsatzen degu au esateko  
arrazoia badegula;  
beria ondo egin ezkerro  
orri etzako ajola,  
egin da gero ukatzekotan  
tratun ez asi sekula.

6/ Zuk egindako despreziuak  
ondo dauzkagu jasuak,  
uste eztala etortzen dira  
kolpera amenazuak;  
gauza onikan ekarri digu  
zuk saldutako basuak,  
esan da egin edozer libre  
gizon eskandalosuak.

---

(3) Bertso-paperean: *egin*.

7/ Tasatzallia Beamakua  
izendatu zan aurrena,  
biak konforme izatekuan  
arek egiten zuena;  
kontzientziai begiratubaz  
egin zuen al zuena,  
artu-emanak berdin dabizkin  
errespetozko gizona..

8/ Danok lanera juañ gñaden  
gu ostiela-goizian,  
atzera laister bueltako gñala  
esandakuak bazian;  
jendia laiste asperdutzen da  
dirurik izan-ezian,  
jornal gabeko morroneruak  
aspaldi aspertu zian.

9/ Enparazi're egin zigun  
gombrestazio zikiñez,  
apenas dauan asko jantziya  
orazio ta dotriñez;  
zure munduba ala dijua  
iñori kalte egiñez,  
zenbat olako egiña zeran  
Jainkuak bestek jakiñ ez.



- 10/ Bere ustetan orrek egin du  
elementozko azaiña,  
txasku polita sartuko zigun  
tontuak izan bagiña;  
oraiñ bertsuak jarri dizkagu  
—orren sufritu eziña!—,  
olako lanik etzan izango  
formal portatu baziña.
- 11/ Errezildikan atera dira  
oraingo bertso berriak,  
sentimentuba daukaten batzuk  
arrazoiakin jarriak;  
oso zaila da zenbait personi  
ondo artutzen neurriak,  
aitu nai ez duenik iñor badago  
itxi bitza belarriak.
- 12/ Mundu onetan gizon guztiak  
nola ez geran berdiñak,  
jendiak gouan eukitzen ditu (4)  
bestiak gaizki egiñak,  
baño lege ori ez du erakusten  
Jesukristoren dotriñak;  
nai dezunian bueltak jarri,  
asmauko'itugu ordañak.

---

(4) Bertso-paperean: *eukitzeitu*.

## ZENBAIT TXAPELKETA

Zepai etzan, gure iritzirako, txapelketetan eta gai bati lotuta kantatzeko jaioa. Bai ordea lagun artean eta gai librean jarduteko. Esana libre bear zuan. Aren orduko ateraldiak!

Ala ere txapelketetan kantatu zuan zenbait aldiz. Orregatik olako bertso batzuk ere emen jartzeak ondo emango du. Asteko, *Lenengo Bertsolari Egun-ekoak*:

\* \* \*

*Lenengo Bertsolari Eguna* Donostian egin zan, 1935ngo Ilbeltzaren 20an. Onako bertsolari auek kantatu zuten: Basarri, txapela eraman zuana, Zepai, Txirrita, Txapel, Saiburu, Abarrategi, Telleri-Txiki, Nekazabal, Lexo, Mintegi, Erauskin, Kortatxo, Alkain, Larralde, Mattin, Zabaleta Juan da Pello, Sorozabal, Etxeberria ta Uriarte.

Maiko jaunak: Ariztimuño, Txomin Olano, Toribio Alzaga, Jose Olaizola ta Manuel Lekuona apaiz jauna.

Egun artan kantatutako zenbait bertso,  
«Bertsolari-guduak» deritzaion liburu ba-  
tean agertu ziran. Zepairenak, onako  
auek:

Lenengo saioan:

Milla urte ta bederatzi eun da  
ogei t'amabosteko urtean,  
olerkariak etorri gera  
gutzizko borondatean  
funtzio eder bat zelebratzeko  
Donostiako partean;  
oitura onak galdu baiño len  
ea mogitu gaitean!

Bigarren saioan:

Nere barrengo sentimentua  
nai nuke adierazi,  
jakinduria gurekin degu, (1)  
iñork ezin galerazi:  
atzerritikan etorri eta  
euskaldunaren nagusi,  
geren gauzakin aginpiderik  
guk ez al degu merezi?  
Kanpotar danak bear luteke  
euskera ondo ikasi!

---

(1) "Bertsolari-guduak" liburuak *j* guziak *y* biur-  
tzen ditu. Zepaik etzuan ola esango. Berriro abisa-  
tu gabe ere, *j* jarriko degu guk beti.

Irugarren saioan, puntuan:

Bigarrena zu zera,  
bota erantzuna...

Orla agurtuko det  
nere ezaguna.  
Asko estimatzen det  
orlako laguna,  
propio ortarako  
da gaurko eguna.

Bertsolarien egun  
zoragarri ontan...

Gizonak ez du bear  
beti berriketan;  
baraurikan gaude ta  
eztarri neketan,  
danak konporme gera  
zurruteko orretan.

Laugarren saioan Zepai ta Alkain'ek alkarrekin kantatu zuten; Zepai nagusi, ta Alkain morroi. Bañan bertso auek Alkain'en liburuan argitaratuak ditugu.

Zepai irugarren gelditu zan txapelketa ontan.

\* \* \*

*Bigarren Bertsolari Eguna* ere Donostian egin zan, 1936ngo Ilbeltzaren 19an.

Onako bertsolari auek kantatu zuten: Zepai, Dargaitz, Etxeberria, Harriet, Uztapide, Lujanbio, Mutuberria, Txapel, Iriarte ta Txirrita. Onek eraman zuan txapela.

Basarri izan zan puntu ta gaiak ematen.

Maiko jaunak: Ariztimuño apaiz jauna, Toribio Alzaga, Leizaola, Olaizola, Lekuona apaiz jauna, ta Basarri.

Saio ontako bertsoak ere *Bertsolari-guak* liburuan argitaratu ziran.

Lenengo saioan euskera goraltzeko agindu zieten bertsolariai. Zepaik onela kantatu zuan:

Jaiotzetikan emen nabil ni  
mundun batetik bestera,  
guregandikan joaten zaiguna  
ez da etortzen ostera.

Bi gauz ditugu maitagarriak:  
Jaungoikoa ta euskera;  
anai maiteak, saia gaitezen  
oitura zarrak eustera.

Ia urtia da Matxin zana (2)  
Jaunak mundutikan illa,  
ura zan gizon pormala eta  
alde guzitan umilla;  
neu ez nitzake abiatuko  
lagun obiaren billa,  
biotzetik desiatzen diot  
zeruan gerta dedilla.

Bigarren saioan gai au izan zuten: «ge-  
rra zitalen ondoren txarrak». Zepaik kan-  
tatutako bertsoak:

Orrelakorik aditzerikan  
ez nuan uste oraindano,  
joan dan aspaldin ibillia da  
gai ontan pranko engano.  
Asarrietan oituak gaude  
bekotatikan gorano,  
orrelakorik etzan entzuten  
kasi-kasirik gaurdano;  
pake txarrena obeago da  
gerrarik onena baño.

---

(2) Garai artako Matxin bertsolaria, lapurtarra  
ura ere.

Gerra gaixtuak sortu ziraden  
Jesus mundun zan artian,  
petralkerian bizi nai eta  
beti gorroto batian.  
Obe genuke orain jartzea  
alkarren borondatian,  
gorroto txarrak utzi ditzagun  
ongi gogoratutzian  
zenbat anaia kulparik gabe  
izkutatu dan lurpian.

Arrazoi au're esan bear det  
oso umil ta serio,  
egia klaro ager dezagun,  
gezurrak ez du balio:  
beti or daude gizonak gertu  
gerra jartzeko propio,  
geren denboran jarri digute  
gerrakin ainbat erio,  
zenbat gurasok negar egin du  
orixen dala merio!

\* \* \*

Irugarren saioan, puntuan:

Asi zaite zu, Zepai,  
neri erantzuten...

Gutxitan jardutzen naiz  
gezurrak esaten.  
Lendik ere dakizu  
nolakoa naizen,  
leialaren itxurik  
ez al diazu ematen?

Euskera piztutzeko  
gauzarik onena...

Auxe da: bildutzia  
danok alkarrena.  
Emen nabarmentzen da  
zein dan azkarrena,  
zeruan sartuko da  
orla eiten duena.

Ezkongairik bazaude  
esan zuk zergatik...

Leno billa ibillita  
nago ni gogotik.  
Baña martxa berdiña  
artzen det denatik,  
gauza on gutxi dago  
mutilzarragatik.



Zer iruditu zaizu  
orrek esan duna? (3)

Ez nuan uste zanik  
orlako jatuna.  
Aspaldin det maiean  
oso ezaguna,  
bera nabarmendu da  
asko biar duna.

Orain gauza bazera  
erantzun zuk neri...

Alde orrek ematen dit  
naikua komeri.  
Zer esan pentsatzen det  
begira danari,  
jator segitze'iozu  
zeuk dezun lanari.

\* \* \*

Laugarren saioan Txirrita ta Zepai al-  
karrekin kantatu zuten. Zepai uztargille,

- 
- (3) Onen aurretik Txirritari jarri zioten puntua:  
Gustatutzen al zaizu — zuri bixigua?  
Tx.: Bai ta jan egiteko — badet desiua.  
Ori da neretzako — mokuu goxua,  
gero zurrut eginda — a zer pasial

ta Txirrita itzai. Saio ontako bertsoak len ere argitaratuak ditugu, Txirritaren liburuan, Auspoa 18-19, 227'garren orri-aldean.

\* \* \*

Eibarren, 1959/XI/8 an, Gipuzkoako bertsolari-txapelketa ospatu zan. Zazpi bertsolari auek kantatu zuten: Lasarte, Uztapide, Agirre, Mitxelena, Lizaso, Garmendia ta Zepai.

Zepaik onela kantatu zuan agurra:

Eta lanian aстера guaz  
estuturik gerrikuak,  
gora Eibar eta eibartarrak  
eta kanpo-errikuak!  
Gure bertsuak entzutearren  
onuntz etorritakuak,  
osasun ona izanez, dezatela  
arratsalde on Jainkuak!

Eibarren euskal jaiak izanak ziran. Aiek goratuaz, bertso bana kantatzeko agindu zieten bertsolariai. Zepaik onako au kantatu zuan:

Obligatua nola nagan  
gauza auek esatera,  
pentsamentuan eduki arren  
nik ondo ezin atera:  
Eibarren baño euskaltzalegoik  
Euskalerrian ote da?  
Gure izkuntza galdu dedilla  
munduarekin batera! (4)

\* \* \*

Andik iru urtera, 1962/XII/9an, Ernain bukatu zan Gipuzkoako txapelketa, goizean saio bat eta arratsaldean bestea egiñik.

Zortzi bertsolari auek jardun ziran: Mitxelena, txapela irabazi zuana; Lazkao-Txiki, bigarren gelditu zana; ta Garmendia, Lazkano, Egileor, Zepai, Imanol Uranga ta Lexoti.

Zepaik goizean bakarrik kantatu zuan. Aren agurra onela izan zan:

Arren erruki izan dezala  
guri agintzen digunak,  
etorri dira anaiak eta  
arrebak eta lagunak;

---

(4) Magnetofonotik artuak.

urtian gutxi izaten dira  
gaur bezelako egunak,  
etorri gabe ezin gelditu  
euskerara maite degunak.

Gero onako puntu au jarri zion Irigo-  
yen-ek:

Dantza lotuan Ernanin  
egiten da lasai...

Ta Zepaik:

Gazte asko nola dauden  
orretarako zai;  
jira ta bueltaka  
makiña bat etsai,  
gauza orrekin konforme  
ez dagola Zepai.

Ta lau itzak ematerakoan, onako auek  
eman zizkion: garra, zarra, parra, in-  
darra.

Ta Zepaik:

Pixka berotutzian  
artzen degu garra,  
jendiak orregatik  
egiten du parra;

badakit urtiak juanda  
nola nagon zarra,  
orregatik gorputzian  
falta det indarra.

Azkenenerako zortzi bertsolariak Txirri-  
tari buruz bertso bana kantatu bear izan  
zuten. Zepaik onako au bota zuan:

Bat eliteke orain abitu  
gizon obiaren billa,  
amaika broma eder jarria,  
leiala eta umilla;  
nik aginduta gure Jainkuak  
ura nola etzuen illa,  
biotzetikan erregutze'iot  
zeruan egon dedilla. (5)

---

(5) Ermaniko bertso auek Lazkaoko benedita-  
rren komentuko kuaderno batetik artu ditugu. Kua-  
derno ori makinaz idatzita dago.

## OROIPEN BATZUK (1)

Gerra aurretik ezagutu nuan gizon bikain au, Donostiko Kursalean lenbiziko bertsolari-txapelketa egin zanean. Nere aita zanarekin egin zuan azken saioa egun arretan, epaileak eta juraduak gaia jarrita. Zepai irugarren eta gure aita laugarren egin zuten. Orduko bertsoak or badituzute liburuetan. Egun artatik asi zan nere berekiko ezagunbidea.

Kursaleko egun arretan oso arriturik gelditu nintzan Zepai onen eztarriarekin. Poz-pozik egon nintzan entzuten aren abo-otsa. Badakit musika aldetik ura baño ere obeak izan ziradela, bañan ez det uste iñor izandu zanik, naiz doñu bat bakarrik jakin, ark bezela doñu arretan bertso kantatzen zekienik. Belarriak tinbreak *tirri-tirri* egiten duan bezela ark jartzen zizkidan, ta beste bertsolari iñork ere ez arrimatzeke arek

---

(1) Atal au, Urnieta-ko Iñaki Alkain-ek idatzia.

bezela. Ezta solfeo ta musika ona zuten *tenor* on usteko oiek ere.

Berarekin geroztik askotan jardun nintzan bertsoan, eta, egia esan, ark zuan abo-ots ederrarekin, nik ez nuan bertsoan bear bezela egiten. Ta ara zergatik: Naiz neronek ere garai arretan *baritono* abo-ots polita izan, arek nola baitzuan goienetakoa, *tenor* alegia, neri alakoxe ezin eramana ematen zidan. Esan nai det inbidia alegia.

Nik nai izaten nuan neronek ere bere berdiñean egitea, bañan naiz apurtxo batean egin, denbora asko baño len poto egiten nuan bozarekin. Gero asten nintzan nere neurrian, eta ontan egiteko ere ordurako nere eztarria zearo urratuta...

Bere doñu bakar artan txoraturik uzten ninduan Zepai bertsolari jator orrek. Zenbat aldiz esaten nion nere buruari: «Nik naiago nuke orren eztarria munduko diru guziak baño!» Neregan iduripen auek askotan egiten nituan, bañan nere eztarria ez izan Zepaik zuan bezelakoa.

Ura asten zanean leku barru batean bertsoan, leku artako kristalak dar-dar

egiñik jartzen zituan. Ura zan eztarri garbia, goi-goienetakoa ta ederra benetan! Oraindik ere, gogoratu utsarekin, inbiriz beterik arkitzen naiz idazten.

Zepai jaun orrek berezko doai ori zuan. Asko ta askotan esaten detan bezela, orain ere esango det: naiz danok amaren semeak izan, berezkoa da gauz guzietan aurrera ta gallen ateratzen dana.

Eta Zepai jaun onek, berezko bertsolari izanik, bere abo-ots dix-dix egiten zuanarekin, naiz doñu batean egin, doñu arretan bertsoan naiko lanak ematen zizkion onenari ere.

(Zepai zanaren doñu bakar ori, lengo bertsolari zarrak ainbeste bider kantatzen zutena da; puntu luzeko doñua, zortziko aundia.

Orrezaz gañera bazuan Zepaik beste doñu bat noski, puntu motzekoa, zortziko txikia alegia, puntua jarriaz kantatzeko geienetan erabiltzen dana.

Puntu luzeko ori, emen jartzearen solfeoz idatzi degu, ta Donostiko Loiolan 1970 urteko San Inazio egunean agurra egiteko kantatu zuan erara idatzi ere. Ona emen:)





\* \* \*

Ni baño ia amar bat urte zarragoa  
zan, ta bere ofizioa, Txirritak bezela, ar-  
gintza zuan. Lantegi onetan bein baka-  
rrik ikusi nuan, eta orduan Idiazabal-  
en, ezkondu ta bere taberna polita ja-  
rri zuan ondorenean.

Ni orduan txofer nenbillen, eta, bera  
ikusi nairik, bere etxean gelditu nintzan;

eta, galde egiñez beragatik, bere emazte txukun eta jatorrak argibide ta erakusbide eman zidan nungo lekutan ari zan argintzan.

Ordurako nik banekian, berak esanda, argiña zala; ta, berak zionez, oso ona gañera. Ta bera ari zan lekura joan nintzan, zer ta nola ari zan ikusteagatik.

Etxe-orma ta pareta egiten ari zira-den. Ango alako baztar batetik apur batean zeletan egondu nintzan, zer eratako argiña zan ikustearren. Eta ondoren, berarengana inguraturik, bertso bat kantatzea pentsatu nuan; baita kantatu ere al nuan egokiena:

Arratsalde on, Zepai ta beste,  
ari zerate egintzan;  
jakin banuan lagundutzera  
lendik etorriko nintzan;  
berandu xamar etorri naiz ta  
ezin asi ni laguntzan,  
bañan, Zepai, zuk dotore asko  
egiten dezu argintzan.

Ta Zepaik onela erantzun zidan:

Alukerira etorri al aiz,  
Alkain, nun edo andikan?

Emen oraintxen guk etzeukagu  
alperraren bearrikan,  
ain gutxi berriz trajez jantzita  
aizen bezelakorikan;  
etorri aizen bire ortatik  
aldegin zak emendikan!

Berari nere bertsoa izeka ta burla bezela iduritu zitzaion; bañan etzan orrela, baizik dan-dana beste aldera.

Izan ere, egun arretan Zepai jaun orango arri karaitz aundiarekin borroka izugarrian ari zan bere aldamioan, eta ez da arritzekoa neri erantzun mikatz samarra ematea. Nik lendik, ni neroni alper samarra izanik ere, badakit ongi bat bere lanean ari dala beste bat tartean sartzeak zer amorro ematen duan, naiz biak adiskide aundienak izan. Arritzekoa litzake ez amorroa ematea.

Ni egun arretan, Zepai gizagajoa alako arri konkora ta aldamio gañetan ikusirik, ezertxo ere ez nintzan arritu bere erantzunaz. Gizona ala ikusita nik ez baineukan bertsoarik kantatu bear. Naikoa nuan arratsalde on ematea.

Orregatik, berak kantatu zidan bertsoari ez nion bertsoz erantzun, bañan bai itzez barkazioa eskatu. Ta bai be-

rak azkar asko barkatu ere, onela esanik:

—Alkain, barkatua zegok! Bañan ik ere neri barkatu akidak, nik ere erantzuna gaizki eman diat eta!

Onela beti bear genduke izan; ez askotan bezela zipozkerian aurrena jardun, ta gero zipoztuta gelditu alkarrekin. Ori beñere ez genduke bear. Zepai jaunak eta biok egin genduan bezela bear gendukela esango nuke: une ta momentu batez alkarri utsegin, bañan bereala alkarri geren aitorketa egin, eta gerorako ezerren ordoi gabe gelditu.

Andik aurrera beñere baño adiskide sendoagoak giñaden beti, ta oso ondo etortzen giñaden biok edozein lekutan.

\* \* \*

Beste egun batez Zepaik berak telefonotik deitu zidan onela esanaz:

—Aizak i, Alkain: datorren igandera-ko bazeukat, etorri nai badek bertso-  
ra, biontzako oso paotx egokia, baldin ik etortzerik badaukak beintzat!

—Zer daukak bada?

—Iru erritan bertsoan biok egun be-

rean egitekoa: emen, Idiazabalen, bat; bestea, Seguran; eta bestea, Olaberrin. Eta iru erri auek nola dauden alkarren inguruan, egun guzirako taxis bat artuko diagu, ta dotore egitea bazeok, baldin ik nai badek!

Eta nere erantzuna onela izan zuan:

—Motell, igandean baldin nai badek, Lasarteko Jabier Izagirre lagun bat artuta joango nak!

Eta orduan aren poza:

—Egia esaten al didak?

—Bai, motell, bai! Gu olako trenean joango gaituk Beasaiñera, ta ik an itxogin, edorrek nai deken taxistarekin, eta ederki egingo diagu!

—Bejonezdakikela, motell!

—Orduan igande arte!

Nik eraman nuan lagun ura, Zepaik oso adiskide zuan, eta zerbait pariente izan bear zuan gañera. Eta orregatik poztu zan Zepai jauna ainbeste. Etzuan alakorik uste. (2)

Onela, beintzat, esan bezela, zintzo-zintzo, joan gera tren artan Beasaiñera,

---

(2) Jabier Izagirre au, *El Diario Vasco*-n idazten zuan, *Jatz* izengoitiarekin.

ta Zepai jauna an zegoen zintzo asko gu-re zai, bere egun guziko taxista artuta. Ta alkar agurtuaz, bereala or goaz Idiazabalera aurrena, ango meza nagusiaren ondoren bertso kantatzera.

Bañan danetarako nola baigenduan naiko denbora, Zepai jaunaren etxean egin genduan amaiketakoa badaezpada ere, bertsoan ongi egin nai bada, sabela beti zerbait berotu egin bear dalako.

Gu ere, salda, arraultz egosi ta ardo zar ederra edanik, begiak dix-dix egiten zigutela, or goaz Idiazabaleko plazara lasai asko bertso tara. Poliki samar egin genduan biok bertsoan.

Nik eraman nuan Zepai jaunaren adiskide ta parienteak, takigrafia bazekian, bañan etzituan bertso oiek artu, erri-pes-tetako bertsoai garrantzi ta inportantzi-rik ematen etzielako, nun-da agintzen etzitzaion.

Bañan bai Olaberrin illunabarrekoak, nik esanda. Azkenean jarriko ditugu orduko bertsoak. Orain goazen Idiazabal utzita Segurara.

Emen ere meza nagusia atera berri samarra zegoan, eta garai politean agertu giñaden plazara iru satellite auek, geren taxista ta guzi.

Au bai gurekin gozatu zala ederki! Irripar eta algara ederrik egin zuan egun arretan. Oso jatorra genduan taxista ori; gizon alaia benetan, danok bear genduken bezelakoa alegia.

Segurakoa egiñik, emendik Olaberrira lasai ederrean; eta Zepai jaunak onela digu bidean, Olaberrira goazela:

—Alkain, berandu samar gabiltzik, bañan Olaberriko erretore jaunari esana zeukat mezetako epistolak gaur mantso irakurtzeko ta letzeko, ta sermoia ere sekulan baño ere luzeago egiteko, ta abar.

Gu eta gure taxista Olaberriraño algazaraz lertzen allegatu giñaden. Ta Zepaik arrazoi zeukan. Nunbait ere erretore jaunak ongi bete zizkan aginduak. Artean ez beintzat ordu laurdenik meza nagusia atera ta bukatu zala, ta ordurako ia eguerdiko amabi t'erdia ziran. Amarretan meza nagusia asi ta ia amabi ta laurdenetan bukatu. Apaiz jaun arek nunbait denbora galanki pasa zuan, bañan guretzat ongi etorri zan guzia. Zepai jaunna direktore ona izan nunbait ere.

Eguerdiko saio ondoren, Olaberriko alkate jaunak, bere sekretario ta guzi, baita erretoreak ere, oso zorion sutsua ema-

naz, bertsoan ederki egin gendualako Olaberriko erria goraturik, amaiketako ederra eman ziguten lau lagunai: gu iru, ta taxista, alegia.

Onek egun ederra beintzat gure bizkar igaro zuan, len esan dedan bezela, algarra ederrak egiñik.

Amaiketako eder ori Olaberriko kontzeju barruan eginda, eta bertso pare bana agintariai kantatuaz, agurtu giñaden, ostera Idiazabalera Zepai jaunaren etxera joateko.

Onen etxean genduan bazkaria, ta arratsaldeko bostetan ostera eguneko bigarren saioa Idiazabalko plazan. Gero seietan Seguran; ta zazpi t'erdietan oster, goizean bezela, azkenik Olaberrin. Onela egin giñuzen egun berean iru erri auetako bertso-saioak.

Nere eztarriari azkeneko Olaberriko saioa arte ongi zainketa egin nion, beti Zepai jaunak baño nota bat edo bi berago egiñaz, ikusirik egun luzea zegoala goitik kantatzen jardunda.

Beintzat, bazkari ederra izan genduan, Zepai jaunaren emazteak maniatuta, ta an bertan bertso batzuk kantatu ondoren, urrena, esan bezela, Idiazabalen asi gerade. Emengoa egin eta oster Segura-



ra patxara ederrean iru sateliteak eta taxista.

Emen ere par ederrik egin zuan jendeak. Erri guzia aurren agurturik, taxistaren gaia artu genduan, bañan alde zurretik jakiñaren gañean jarri genduan taxista jaun alai ura; ta berari esan da galdetutakoan nai al zuan beragatik bertotan egitea, onela erantzun zigun:

—Bai pozik! Eta ez badezute neregatik egiten, asarretu egingo naiz!

Onelaxen egin genduan, berari baime-na eskatuta, batzuek ez baidute nai izaten beren izenik aitatzea ere, ta badaezpada ere ez da ezer kostatzen berari galde egitea ia nai duan edo ez. Eta onek berak nai zuan, eta guk bai egin ere.

Saio onetan bi bertso, aurrena Zepai jaunarena ta bestea nereka, gogoan artu nituan nere bizi guztiko, ta ara nun diran:

Gure taxista onek jan ditu  
igarrak eta ezeak,  
goiz-goizetikan jaten asita  
egin dituan aseak!  
Eundaño asko tragatzen ditu  
ematen zaizkan klaseak,  
bazirudien aspaldietan  
zegola arrunt goseak.

Nere lagunak taxistarena  
geiegi samar esan du,  
orren okerra nere bertsoan  
zerbait bear det zuzendu:  
orren aitzakin gu biok ere  
ez gera txarrak izandu...  
Gañera zer da? Jale ederrak  
beti poza ematen du.

Segura erri onetan penetan gelditu zira-  
raden, guk andik bereala Olaberrira joan  
bear genduala jakin zutenean. Bañan  
agintzen dana zor dala da esaera, ta guk,  
len esan bezela, zazpi t'erdietarako Ola-  
berrin egon bear giñaden.

Gure taxista etzegoan pozik, eta zerga-  
tik ote, eta beragatik gutxiegi esan gen-  
dualako, alajañetan! Onek bai sartu zi-  
gula ziri ederra! Nere ustez esateko geie-  
nak esan genizkan, eta ala ere gutxi idu-  
ritu. Ez dakit zer geiago nai zuan: bes-  
te itz bear ez diran oietako batzuk, edo  
ez dakit zer demonio; bañan errita eman  
zigun Olaberrira goazela.

Bañan gero, Olaberriko kontzeju ba-  
rruan, ederki asko gozatua zan gure ta-  
xista jauna. Txuleta jaten, gazta jaten  
eta sagardo edaten, ark egin zituan be-  
tekadak, lendik ainbeste janda egin da  
gero! Arekin etzan giro!

Ta neri orrelako txoferrak gustatzen, txofer guziak, jaten eta edaten ez bada-kite, geienak txarrak ikusi izan dituda-lako orain artean. Neroni ere gerra den-boran alde batetik txofer ibili nintzan, eta asko ikusia naiz txofer izate onekin. Txoferrak edaten eta jaten ez badu ba-lío, oso argi ibili zindezke arrekin. One-tan, bestetan bezelaxen, ikasia ta laztua bear du. Ori ez dakien txoferrari au ger-tatzen zaio: alako egun batez jan da edan asko samar egiten du, automobi-llarekin abiatzen da, ta bereala bere be-gietan asten da zomorroak ikusten. Or-duan, gelditzen ez bada, kankako ederra eman edo artuko du. Bañan gure orduko taxistarekin etzegoan alako bildurrik. Nunbait ikasia zegoan ederki asko ori egiten. Jesus, ark sartu zituanak sabe-lera!

Txuletak jan ondoren, bagendakigun beste bigarren saioa egin bear genduela; ta, ori orrela izanik, or esan digute, al-kate, erretore ta sekretario jaunak zer gaietan egin bear genduan bertsotan, eta gaia onela izan genduan: Olaberriko nes-katx gazte geienak ezpain-pintaketan asiak zeudela, ta ezpain-pinturaren kon-tra bertsotan egiteko.

Nik adierazi nien, alegia, esanaz Bea-

saingo azkeneko trena artzeko juxtu-juxtuan izango nintzala bertso-saioa egin ondoren, eta ia zer iduritzen zitzaien aurretik kontuak egitea. Ta sekretario jaunak ongi zegoala, ta bereala kontuak egin giñuzen, paper bat firmatuaz.

Eta or atera gera biok aiuntamentuko balkoira bertsoan egitera ostera. Balkoi artara irten giñadenean biok, eta ordu-rako zer gai genduen jakiñik, onela diot Zepai jaunari:

—Aizak, Akilino: au bururatu zaidak une ta momentu auetan.

—Zer dek bada?

—Zer izango diat! Biok pinturaren kontra ta aurka egiten asten bagera, ez degu ezer alaitasunik jarriko, ta ik jo zak pinturaren aurka, ta nik egingo diat garbitasunaren alde, baldin edorrek nai badek.

—Zerria! Naiko ez diat bada? Motell, poza ematen didak! Lenengo bertsoan, beti bezela agurtzan, ez diat ezer pinturik aitatu, ta edorrek ere bigarren bertsoan nai deken bezela eman akiok esandako gai orri asiera, ta ikusiko diagu zer nola ateratzen dan gure saioa!

Jakiña, izketa auek egin genituan jen-

dea aiuntamentura inguratu bitartean, an ez baigenduan altabozik; eta inguratu arte egon egin bear bertsoan asteko.

Geren takigrafista ondoan genduan bertsoak artzeko. Takigrafista oni, dirua kobratzeko aurrean, esan nion zer da nola genduan gaia, ta gure bertsoak artzeko lasai-lasai ta ezerren kezka ta bildurrik gabe, bere demoniozko politikarekin oso bildurtia baitzan. Eta Zepai jauna ta biok, nola ez baigenduan ezerren politikarik buruan, baizik bakarrik euskaldun giñadela odolez eta biotzez, orregatik esan nion takigrafistari lasai-lasai artzeko gure bertsoak; eta gañera, ark nola ez baitzuan egun guztian jan da edan besterik egin, neronek ere baneukan gogoia zerbait lan egin-aztekoa. Ta oso ondo egin zuan agindutakoa.

Kontzejura inguratu zanean zar da gazte jendea, bertso onekin asten da Zepai:

Gaur bigarrenko txandan gerade  
balkoi ontatik bertsoan,  
gañera ondo artu gaituzte  
gaur biok erri onetan;  
nere lagunak zer erantzuna  
eman lezake gai ontan:  
olako jende jatorra ikusi  
al dezu leku askotan?

Zepai jauna, zuk galde dezu ta  
ara nere erantzuna:  
gaur eguardian etzan arkitzen  
olako argitasuna;  
ezer neskatxik apañik etzan,  
zegoan illuntasuna,  
nik ikusten det allegatua  
dagola garbitasuna.

Nere lagunak kontestatu du,  
ara nola arkitze'an:  
neska gazteai dago begira,  
gañera ero-antzean,  
betiko gaitza baidauka onek  
ola begira jartzean;  
emakumeak ez du balio  
ola pintatzen astean.

Zepai, badakit nora zoazen:  
neskatxaren atsegiña;  
barka zaidazu ezertan egin  
baldin badet utsegiña;  
garbitasuna dagon lekuan  
zertan gaizki itzegiña?  
Obe genduke gizonak ere  
garbi-garbiak bagiña.

Bertso onen ondoren izan genituan izugarrizko txaloak, benetakoak gañera; ta apur batean ixil-ixilik egon bear izan genduan biok, alkarri begiarekin kiñu egiñaz. An zan ixkanbilla jarri zutena mutil eta neskatx gazteak! Eta nola emakumezkoa ez dagoan lotsagabekeria austerik, ango mutil guziak ixildu egin bear izandu zuten. Eta alako batez ostera Zepai jaunak onela kantatzen du:

Alkain, zuk emen nastu dituzu  
nola zar eta gazteak,  
bañan zu gaizki ari zerade,  
ez dira zure usteak;  
badakit onak ez dituzula  
pinta gabeko gazteak,  
gaur neri lotsa ematen dit  
zu orrela ikusteak.

Arritutzen naiz, Zepai jauna, zu  
onetan zuk neri eldu;  
gizonak beti arrazoizkoa  
leku guzitan bear du;  
arrazoiari eltzeak beti  
guregan bear ez al du?  
Garbitasunez dabillen ura  
ezin bailiteke galdu!

Beti zu, Alkain, ari zerade  
garbitasuna orrekin,  
ni berriz oso arriturikan  
neskatx ezpailñ gorriakin;  
Olaberriko erri onetan  
asi dirade biñipin;  
garbitasuna ez leike izan  
pintura zikin oiekin.

Zepai jaun onek izan lezake  
zerbaiten fundamentua,  
emakumea ezagututzen  
ez da beñere tontua;  
bere gogozko ez du beñere  
emakume pintatua,  
geiegizkua leku danetan  
mundu ontan pekatua.

Olaberriko errian ere  
pintura zaigu gallendu,  
ikusten danez beren arpegin  
oso ongi ematen du;  
nik aginduko banuke azkar  
fabrika txar ori kendu,  
zikiñarekin mundu onetan  
zenbat bear dan mantendu!



Gaurko eguneko emakumeak  
garbitasunari eldu,  
mundua ongi aurreratzeke  
orrela egin bear du;  
sudurreraño asten badira  
geiegia orrek galdu,  
bañan neskatxa garbiak guban  
beti dix-dix egiten du.

Bertso onekin ere aiek txaloak! Zepai jaunari ango mutil gazteak, eta neri ango neskatz gazteak. Une ta momentu batzuetan borrokan asiko ote ziraden ematen zuan. Bañan etzan orrelakorik gertatu, Zepai jauna ta biok jakiñik baigeunden ura nola antolatu, ta bai antolatu ere. Zepaik onela kantatu zuan urrengo:

Alkain, gaurkoan Olaberrian  
oso zelebrea zaude,  
bertso-saio au bukatutzean  
emendik azkar zuk alde;  
neskatx gazteak zu arrotutzen  
geiegi ari zerade,  
goratu gabe emakumeak  
naiko arroak dirade.

Zepai jaun onek Olaberritik  
bialtzea nai izuka,  
bañan badakit ez dala iñor  
neri asiko arrika;  
Beasaiñera ni ez naiz juango  
presaka eta korrika,  
juaterakoan neskata bati  
jardun bear det musuka.

Emen ere txalo ta irripar eta algara  
ederrik bazan bolara batean. Bertso one-  
kin ango mutil gazteak ere asi ziran ne-  
ri txaloka. Ta, ura ikusirik, gero ta bil-  
dur gutxiago neukan garbi bertsoan egi-  
teko.

Alkain onetxek dauzkan usteak,  
jaunak, gezurra diruri,  
musu ematen asiko dala  
gero neskata bateri;  
berez granuja samarra da ta  
izan leikena da ori,  
bañan ez dio onek emango  
ezpain pintatutakoari.

Balkoi ontatik begira nago  
nik zeñi eman, jakiña:  
soñeko berri garbiarekin  
guzizko dago apaña,  
ezpañak oso pintatuk dauzka,  
gorputza bikañ-bikaña;  
naiago nuke zu gero, Zepai,  
nere ingurun baziña.

Baldin ezpañak pintatuakin  
baldin badago neska ori,  
ai zer nolako matrallekoa  
emango dizudan zuri!  
Pañuelo eder bat emango diot  
garbitutzeko berari,  
bestela kapaz izango baita  
musu emateko neri.

Oinbeste aitzaki neskatxa ori  
pintatua dagolako,  
ni beintzat musu emate orri  
ezer ez naiz lotsatuko;  
bera biñipin jarriko al da  
ongi-ongi ortarako,  
ezpañak oiek garbi ditzala  
emendikan jeixterako.

Nola alperrik ni ari naizen  
gaurkoan Alkain onekin,  
au onelaxen kontra egiten  
jarduntzen baida nerekin;  
ez al da beintzat musuka asiko  
ezpañ pintatuarekin!  
Aspertu naiz ta buka dezala  
bere azken bertsoakin!

Arrazoi dezu, Zepai laguna:  
emendik aurrera kalte;  
Olaberriko anai-arrebak,  
ez gero arritu bate;  
umore ona jarri degula  
ongi ikusi dezute,  
gaba on bana igaro eta  
agur urrengo urte arte!

Oso txalotuak izan giñaden biok. Ni aurretik neskatzak geiena txalotzen ninduten, bañan azkenik baita ere mutil gazte guziak. Nunbait ikusi zuten noizbait ere gero berentzako ari nintzala preparamen asuntua; ta orrela antzeman zidatenean, azken aldera aitona zarrak ere txaloka asi ziraden, eta mutil gazteak nola ez alako egokiera jarrita?

Balkoitik kontzeju barrura sartzera-koan oso txalotuak izan giñaden; bañan, jakiña, alkate, sekretario ta erretoreak zerbait errita eman zidaten agindua bete ez nualako. Bañan oso alkarte ederrarekin aldegin genduan kontzeju artatik.

Onela bukatu zan gure Olaberriko bertso egitea, ta trena juxtu samar artu genduan, bañan ongi.

DONOSTIA-KO LOIOLA-N  
(1969/VII/31)  
ZEPAI, UZTAPIDE TA AROZAMENA

San Inazio egunez urtero etortzen zan Zepai Donostia-ko Loiola-ra, Uztapide ta Arozamena-rekin bertsoan egitera. Seguru asko, oiek izango dira jendearen aurrean egin zituan azkeneko saioak.

Oietatik bi saio jaso al izan ditugu: 1969 ta 1970 urtekoak. 1969-garrengoa, Jose Ayerbe-k artu zuan magnetofonoz.

Liburu ontara baño len, bertsoak Uztapide ta Arozamena-ri erakutsi dizkiegu, ongi kopiatuak dauden da abar esan dezaten. On-artze ori, bere bertsoai ez-ezik, Zepairenai ere Uztapidek eman die.

1969 urte ontan, lenengo gai librean aritu ziran, eta urrena gaia emanda.

Ona bertsoak:

Z.: Lenago emen izan giñala  
oraintxe da urte bete,  
ori lastima oraiñ artian  
ibilli gera aparte;  
baña Jainkuak guri eman digu  
eskatu aña suerte,  
galdetze'izuet: loiolatarrak,  
zer moduz bizi zerate?

U.: Loiola aldera etorri eta  
zabalik zeuden atearak,  
zuekin lendik baiginduzen guk  
maitasunezko kateak;  
bertso batzuek kantatutzeko  
geunden gogoz beteak  
Jaunak egun on lendabiziko,  
bertso-entzule maiteak.

A.: Beti bezela ementxen gera  
berriro bertsolariyak,  
egun eder bat pasatzearren  
Loiola aldera etorriyak;  
oraindik ere txoko politikak  
badauzka Euskalerriyak,  
agur bero bat eskeintze'izutet,  
euskaldun maitagarriyak.

Z.: Nik uste nuan egongo zala  
toki au dana betian,  
da gutxi samar sartu zagu,  
ori danentzat kaltian;  
gu bakarrikan ote gaude ba  
bertsuan borondatian?  
Emengo pestik ez da galduko  
Martin bizi dan artian. (1)

U.: Urtero bezela aurten ere  
San Inazio iritxi,  
len ere esan det eta Loiolan  
eztute aterik itxi;  
beñ artutako oiturari guk  
iñola ez genuen nai utzi  
emen dagan fallo pixka bat:  
entzulia dago gutxi.

A.: Ori ikusita bertsolariya  
menperatzen du txit penak,  
asi ezkerro esan bearra  
gogora etortze'idan denak;  
baña jendeok izate'itugu  
guk biotzetik maitenak,  
gure atzetik ibiltzen dira  
euskerak maite dutenak.

---

(1) Martin Artano, edo esan oi diotenez *Martin letxerua*, zaldibitarra berez, bañan Loiolan bizi dana, bertso-zale purrukatua.



Z.: Emen diraden jende guziya  
baldin badegu pabore,  
ta gutxi dala diyogu baña  
jendia dago dotore;  
ezin leikela asko kobratu  
jenderikan sartu gabe,  
orren bildurrikan ez eduki,  
arreglatuko gerade.

U.: Euskera nundik indartuko dan  
emen gabilta galdezka,  
lenez gañera gaurko onetan  
nik artutzen dedan kezka!  
Emen geienak zarrak gerade,  
gazterik ikusten ezta,  
giza-aldi au jua ezkeru  
akabo bertsuen festa!

A.: Ai, Uztapide, zure bertsua  
nola izan dan txukuna,  
eta buelta bota bearra  
au da nere eginkizuna;  
zarrak bakarrik esan dezu ta  
jartze't kopeta illuna,  
gazte askua emen ari da  
euskera maitatzen duna.

Z.: Ai, Uztapide, nerbiyuakiñ  
etzaitzela mugitu,  
Zepaik orain esate'uana  
biar zenduke aditu:  
bizi gean arte guk geriari  
biar diyogu segitu,  
gure Jainkuak beriak ditu,  
oaindikan emango ditu.

U.: Bazitekian lengo bertsua  
izatia nabarmena,  
Migel maitia, beti izan det,  
bai, nik zure aitormena;  
zuregatikan enitzan ari,  
zertan artu dezu pena?  
Entzuliakin sartutzen bainaiz  
ni emen, Arozamena.

A.: Nik biotzetik maitatzen ditut  
Uztapideren bidiak,  
zuregandikan ikasi nitun  
bertsuetako legiak;  
zerbait esan bearra daduka  
benetan bertsolariak,  
ez bildurrik euki, badatozti  
ondorendik landariak.

Z.: Obligatuta gauden ezkeru  
segi deiogun lanian,  
saiatutzia obeko degu  
epoka datorrenian;  
enáiz konforme galduko dala  
Uztapiden esanian,  
indartuko da illiak moztuta  
laixter jartzen diranian.

U.: Gu ari gera indartu naian  
sekulako afanian,  
era ontara erori gera  
Jainkuaren izenian;  
Arozamena, gogotik asko  
ari zerade lanian,  
ia ixiltzen zeran zu ere  
entzulerik ez danian.

A.: Ai, Uztapide, bire onetik  
ari zerade kantatzen,  
eta arrazoia daukazula  
biziro dizut aitortzen;  
sarrerarikan ordaindu gabe  
alare ez dira sartzen,  
martxa onetan kostako zaigu  
gure izkuntza indartzen.

Z.: Izan diteke gure izkuntza  
eztala egiten samurtu,  
baña orrekiñ etzaitezela  
oraindik ere makurtu;  
etzazu bada pena geiegi  
gauza orrekin zuk artu,  
semiak ere euskaldun datoz,  
etzaitezela bildurtu.

U.: Ez pentsa, Zepai, naganikan  
burutik oso nastuta,  
aldatuko naiz, gai oni ere  
segitzerikan ezta;  
Zepai bera're jarrita dago  
bertsuak iya aztuta,  
taberna dauka etxian eta  
andikan aberastuta.

A.: Nik e Zepairi esango diot  
gutzizko borondatian,  
ia karrera ateratzen deun  
edo lotzen deun katian;  
neoni ere izana nazu  
antxe lengo egun batian,  
orrek dirua lasai egingo'u  
ura datorren artian.

Z.: Ai, Uztapide, zure bertsoa  
jarri dirazu aukeran,  
bañan nik ez det ori sentitu  
nola adixkide geran;  
gora ust'egu guazela ta  
asi gerade gain-beran,  
amar urteko zuri utziko'izut  
ia aberasten zeran.

U.: Brometan ari nitzaden eta  
etzaitzela samindu,  
baña Uztapide burutik ezta  
tamaña ortan arindu;  
juan daneko amar urtian  
dirua pranko egin du,  
oraiñ onenak atera eta  
bere lagunai agindu.

A.: Iñoiz edo bein juan ezkerro  
Akilinoren etxera,  
jatekua ta eranetikan  
eukiko dezu aukera;  
txanpon batzuek einda dagola  
ematen diot tankera,  
taberna jarri zun ezkeroztik  
ez omen da juan lanera.

Z.: Esan liteke naguala ni  
oraiñ e buruko miñez,  
zenbat laguntza egin diraten  
Jainkuak bestek jakiñ ez;  
pasatu ditut urtia pranko  
lana galanki egiñez,  
eta oiñ ere allegatzen naiz  
zorrak pagatu eziñez.

U.: Lengo Agoztoko illian zuen  
bere etxetikan erten,  
or ibilli zan Aprika aldi  
beintzat illabete baten; (2)  
beonek eztit esaten baño  
ari zaizkitzit esaten  
Ameriketâ gutxienekoz  
juan bear omen dula aurten.

A.: Utzi zituan lan gogor danak  
eta utzi zitun penak,  
ikusitzen det buelta aundiyak  
orrek egin lezakenak;  
Afrika aldi ikusik ditu  
moro eta beltza denak  
buelta oriyek ez ditue egiten  
txanponik ez daukatenak.

---

(2) Zepaik eta bere andreak egun batzuk Ceuta-n pasa zituzten.

Z.: Ibilli giñan jun dan urtian  
pranko denbora luzian,  
gure etxian jun nai zutenak  
geiago ere bazian;  
aiek bakarrik etzuten aintzen  
nik e agindu-ezian,  
ez pentsa bakarrik pagau nitula,  
auzuak lagundu zian.

U.: Beraz auzuak ordaintzen ditu  
zure etxeko okerrak,  
gauza oriek danak dauzkagu  
pixka bat astindu bêrrak;  
mundu onetan suertia du  
onen moduko alperrak,  
bizi bapua pasatzen ai da  
emaztiari eskerrak.

A.: Ori ikusita nola ez alaitu  
gizon on baten barrenik?  
Egun bapuak pasa zitula  
ori lendik badakit nik;  
gu baldin bagaude gure errian  
gañera bizi eziñik,  
auzotikan ez degu izaten  
olako laguntasunik.

Z.: Arozamena, guk badakigu  
aspaldiñ alkarren berri,  
gure errira zuk e ez dezu  
iñoiz gutxietan korri;  
nun ondo bizi litekian  
esan deiogun alkarri:  
borondatezko jendea nai baezu  
gure errira etorri.

U.: Juaten ere saiatu laike,  
aizu, Migel, alegiña,  
onek ez dauka bate penarik  
Errezil-dik aldegiña;  
azai tartian dirua pranko (3)  
Idiazabal-en egiña,  
baña uste det auxen dala ango  
azairik aundiñ-aundiña.

A.: Ikusitzen det urte askuan  
dabilela bizirikan,  
ondo bizitzen eztu artutzen  
orrek beñe etsirikan;  
itzak gozuak dauzka orretzek  
oraintxe mingañetikan,  
baña gu juaten bagerade  
an zakurrak ankutsikan.

---

(3) Idiazabaltarrei *azariak* edo *azaiak* esan oi  
zaie ez-izenez.



Z.: Badakizute Idiazabal-en  
aspaldin bizi naizela,  
juan daneko urte askuan  
gogor saiatu naizela,  
nere pameliyaren jabe  
enitzan eingo bestela;  
uste al dezu ni juan nitzanian  
perratu-eta zeudela?

U.: Emen aitortu bearra dago  
nola zeraden azkarra,  
zuk jarri zendun zeru-antzian,  
ura're len zan kaskarra;  
alper-alperrik ematia da  
gizonai konduta txarra,  
aruntz juatian ez dezu gaizki  
artzen zeure lagun zarra.

A.: Nik ondo dakit nola diraden  
tabernariyen jokuak,  
oien bizitza pagatu biar  
aruntza juandakuak;  
mokadu onak jarritzen ditu  
guretzako modukuak,  
onek kentzen dizka zakurrari  
perra ta oñetakuak.

Z.: Arozamena, ôiñ e dirazu  
disparatia tiria,  
ixill-ixillik egongo banitz  
neretzat etzan kaltia;  
zuk esan dezu gure etxia  
preziyoz dala betia,  
debalde jan nai badezu obe  
ospitalera juatia.

U.: Au orain ere lengua dago,  
ni esatera nijuan,  
danak zapaldu ote dituzun  
orren aurreko ujuan;  
oraindik ere gure laguna  
ezta estadu bajuan,  
onek zerbaitxo dadukan arte  
etxe orretara juan.

A.: Lengo batian etorriya naiz  
ni Zepai orren etxetik,  
otz aundirikan enun ekarri  
kanpua eta barrendik;  
zenbat txanpona utzi nituan  
goguan daukat oraindik,  
ainbeste diru eleike egin  
Jaungoikuaren biretik.

Z.: Nere munduko ibiller'abek  
oaindik ez ditut aztuak,  
Arozamenak nere buruak  
ipintzen ditu nastuak;  
eman dituzun arrazoi oiek  
ziraden oso bastuak,  
iru sos baitut etxian baña  
ez projimuai ostuak.

U.: Zuk e taberna jarri zendun da  
egin zenduen jokua,  
zerez e pixkat izango zera  
nunbait bizimodukua;  
lendabiziko ein zazu beintzat  
urre gorritik naikua,  
mundu onetan uste det dala  
orixen gaurko jainkua.

A.: Begira, Zepai, esango dizut  
orain kolpetik zerori,  
egi batzuek aitortutzeko  
ari gerade kantari:  
pixka-pixka bat beira zaiozu  
zure erri ta auzori,  
guri merkexiago emanda  
kendu belarrimotzari.

Z.: Esan liteke arrazoi dula,  
orrentzako da kintzia,  
gustatutzen zat izketa ori  
neri oraiñ ordaintzia:  
norberak lana egiten baño  
errexago da aintzia,  
opiziyorik txarrena au da:  
eztaukanari kentzia.

U.: Luzaro ari gera lanian  
nola daukagun itzala,  
baña uste det nik gai batekin  
luze samar gabiltzala;  
entzuliak e aspertzen dira  
bertsolariak bezela,  
ixil gaitezen eta Anttonek  
gai batzuk jarri ditzala.

A.: Bizimodua nol'izaten dan  
txit taberna-baztarretan,  
Akilino're familiyakin  
ortxe dabill indarretan;  
gu berriztikan aruntz juanda  
irten bear negarretan,  
ordaindurikan etzaukatenak  
utzi zutena zorretan.

\* \* \*

Uztapidek eskatu bezela, gai batzuek jarri zizkieten, bakoitzari gai bana. Daturik, magnetofonoz etzuten gai-emate ori artu. Bañan bertsoetatik errez igeritzen zaio gai oiek zer ziran: Arozamena-ren gaia, Loiola ballarako ur-eskasia zan; Uztapidena, baserria; ta Zepairena, ille-bizar luzeak dituztenak.

Onela kantatu zuten:

A.: ..... (4)

egin nai det egiñala  
ikust'ezute aspaldi ontan  
urik gabe gabiltzala;  
esaten dute tuberi orik  
oso txikiyak dirala,  
urik gabeak ekarritzen du  
familiarako itzala.

U.: Urterik urte ikusten degu  
baserriyaren iltzia,  
atzenak dira ta eztu baliyo  
orain broman ibiltzia;  
erremediyo bat pentsatzen det  
Zepairekiñ ipintzia:  
obe genduke gona motz oiek  
oain baserriyan sartzia.

---

(4) Lerro au etzuten magnetofonoz artu.

Z.: Borondaterik asko badaukat  
pazientziya artzeko,  
a ze ejemplo ona daukazun  
baserri txarra ontzeko!  
Nik badadukat borondatia  
pixkat zuri laguntzeko,  
makinak eosi biaitut aurrena  
aiei bizarrak mozteko.

A.: Nik pentsatzen det eite'ituztela  
ur orrekiñ alegiñak,  
eta ezian sortutzen dira  
famiyietako griñak;  
alde batetik egarriya ta  
beste aldetik zikiñak,  
denborarekin etorri leizke  
sendatuko eztiran miñak.

U.: Nik ikusten det gorabera bat  
guztiontzat galgarriya:  
etxiak egin bazter guztitan  
eta aunditu erriya,  
seme-alabak igesi jua  
ta ustu da baserriya;  
aldaketarik ez baldin bada  
laixter ixtilu gorriya.

Z.: Lotu dezagun iñol'al bada  
jendillaje au kation,  
zenbat endredo jarri digute  
bizi giñanak pakian!  
Illiak eta bizarrak luze,  
gorputz guziak tapian,  
baserriñ eztô zer egiñikan  
oriyek moztu artian.

A.: Uran kontuba berriz e nai det,  
agintariyak, berritu,  
orru aundiyan esan nai nuke  
iñork nai badu aditu;  
zikiñ usaia artuta gaude,  
ezin gerade garbitu,  
donostiarren anaiak gera,  
loiolatarrez oroitu!

U.: Badakizute nola indarrrik  
gabe dagon baserriya,  
piño-aldaketa orrekiñ ere  
oker aundiya etorriya;  
atzenerako emen badator  
euskaldunentzat arriya:  
baserri gabe gelditutzean  
zertako Euskalerrriya?

Z.: Esan biarra nei tokatu zat  
ariyan ari naizela,  
motibua're banuan eta  
ixillik negon bestela;  
buru gañetik ipurdiraño  
illiakiko itzala,  
gure Jainkuak nere partetik  
danak kalbotu ditzala.

\* \* \*

Ta, bukatzeko, beren artean puntutan  
jardun ziran:

A.: Orain agintzen dute  
puntua jartzeko...

U.: Kapaz al aiz i, Zepai,  
ortan segitzeko?

Z.: Eztiak agindu beintzat  
muturrian jotzeko!

A.: Jaunari eskatu diyo  
danak kalbotzeko!



U.: Gu kalbotuta gaude  
gaur baño lenago...

Z.: Ni're gauza orrekiñ  
aztuta ez nago.

A.: Nere buruan beintzat  
illarik eztago...

U.: Barberuen irabaziya  
orduan akabo!

Z.: Oraiñ eztaukagu emen  
barbero biarrik.

A.: Nerekin beintzat ez dute  
egingo indarrik.

U.: Zertan eman bear uen  
desafiyo txarrik?

Z.: Ik ez dek eorrek kentzen  
etxian bizarrik!

A.: Aspaldin dabil jeni-  
yotik txarrekua.

U.: Ori eztu oraingua,  
oraiñ aurrekua.

Z.: Uztapide det ortan  
lagundutakua.

A.: Au da gaztiai gorroto  
asko artutakua.

U.: Enauk arritzen eukita  
ik jeniyo txarra.

Z.: Baña ortan etziok  
Zepai bakarra.

A.: Oraindik e badauka  
gogotik indarra.

U.: Bertsuak utzi eta  
artu zak gitarra!

U.: Gustatu ote zaioten  
ein dezun ertera?

Z.: Kasoik ez dute egin da  
konponduko gera!

A.: Entzun nai dunantzako  
jarri du aukera.

U.: Agur, anai guziok,  
guazen bazkaltzera!

## DONOSTIA-KO LOIOLA-N

(1970/VII/31)

### ZEPAI, UZTAPIDE TA AROZAMENA

Jose Ayerbe-k: Urtero bezela emen ditugu gustoko ditugun bertsolari auek, eta asera emateko lendabiziko agurra bertso bana kantatuko dute, jendea agurtuaz eta San Inazio eguna gogortuaz eta abar. Asera emango du Uztapidek.

*U.:* Loiola aldera ekartzen gaitu  
San Inazio egunak,  
urtero egun au txoko ontan  
ospatu izan degunak;  
aurreko aldiak ikusten ditut  
neure anai euskaldunak,  
auxen da poza ikusitzian  
baditugula lagunak!

Z.: Jendiak ontzat artu dezala  
gure emengo jarduna;  
eta gaur ere juntatu gera  
kuadrilla ezaguna,  
alkartasuna geren biotzez  
asko maitatzen deguna;  
pake onian pasa dezagun  
San Inazio eguna.

Ar.: Nere lagunak bezela nik e  
oraintxen bertso berriyak,  
jendia pixkat alaitzearren  
ununtz gera etorriyak;  
gutxiagorik etzun merezi  
Loiola aldeko erriyak,  
agur bero bat eskeintze'izutet,  
euskaldun maitagarriyak.

\* \* \*

Jose Ayerbe-k: Orain, pixka bat bero-  
tu ditezen, puntu batzuk jarriko dizka-  
tet. Lendabizikoa Uztapideri:

Ay.: Juan bear al dezu biyar  
Urtaiñ ikustera?

U.: Esamiña egiten  
ez nua astera;  
aspaldin dabill erri  
batetik bestera,  
beti kontu bat aitzen  
aspertuak gera.

Ayerbe-k: Orain Arozamena:

Jarraitzen al diok oraiñ  
ere parrandari?

Ar.: Aspaldian egiten deu  
ortatik ugari,  
batzutan jaten eta  
bestetan kantari;  
ikusi nai baldin b'ek  
i're etorri ari!

Ayerbe-k: Orain Zepai:

Gu beti pronto gaude  
illia artzeko...

Z.: Guk e badegu tokia  
gauz ori sartzeko;  
ibilli arren eskiñan,  
bestiak ertzeko,  
gutxitxo dakizu guri  
adarra jotzeko!

Ay.: Zenbat bertso kantatzen  
dezu egunian?

U.: Mordoska dezentia  
era degunian;  
parrez iya lertu nitzan  
oraingo unian,  
Zepaik bertso ori  
bota digunian.

Ay.: Zer esaten dik andreak  
berandu joatian?

Ar.: Errita izaten dek  
alakon batian;  
baña guziok kontun  
erori gaitian,  
oraindik eukitzen nau  
naitasun fuertian.

Ay.: Zenbat andregai izan  
zenitun gaztetan?

Z.: Beiñe enitzan ibilli  
ni're berriketan;  
enitzala iritxi  
estadu orretan,  
bat artu nun allegatu  
nitzanên urtetan.

Ay.: Zigarro ala ardoa  
zer dezu naiago?

U.: Eztago galdetzerik  
gizonai geiago;  
bietatik galerazten  
asi-eta nago,  
zartu gera ta guria  
iya juana dago.

Ay.: Entregatzen al diok  
jornala osorik?

Ar.: Kentzeko ez dît izaten  
beñere gogorik!  
Bestela nola euki  
olako triparik?  
Dirurik gabe etziok  
dotore jaterik!

Ay.: Praille sartzea ez al dezu  
beñere pentsatu?

Z.: Oraindik memoririk  
nik eztet kansatu;  
olako kuadrillan  
ez gera juntatu;  
nere pekatu ta iriak  
nai dituk kontatu!

\* \* \*

Jose Ayerbe-k: Orain bakarka egingo dute. Bakoitzari gai bat jarriko diotet, eta bakarka iruna bertso. Lendabiziko, Arozamena-ri:

Arozamena egin zagon kontu dala baserrian dagon morroi bat, baserriko morroia; eta baserri ortan, oitura izango da edo ezta, eztakigu, otorduko denboran ardo pixka-pixka bat bakarrik ematen diote, ta bera pixka bat ardoa gustatzen zaiona da. Ez degu esango pasatzen dana edo mozkorra danik, baño gustatzen zaiona ardoa. Pitarra dauka nai dun ainbeste, pitar gazia, eta ez dio grazirik egiten pitarrak. Edan baño, ez edan naiago du pitarra. Bañan jai-arratsaldeetan libre izaten du illuntze arte, ganaua gobernatu arte; tarte ortan, ba, egiten ditu bere egiteko batzuk: joaten da ta pixka bat berdinduta joaten da etxera. Ta gero, jakiña, ganau-lanak egin bear da, nagusia gañean da, an izaten dira komeriak lanak ezin egiñik! Eta bes-tetan baño denbora geiago pasatzen du ta esne gutxiago bildu. Ta nagusiak or artzen dio kargu, esanez oitura ori uzteko, bestela bialdu egingo dula. Bera oso gustora dago; soldata ona irabazten du ta pena ematen dio itz oiek entzutea, baño zuk esan ortik aurrerakoak.



A.: Nagusi jauna, dauzkaten penak  
astera nua kontatzen,  
goizetik arrats gelditu gabe  
,ai naiz lanian puskatzen;  
zure morroia nazu, nagusi,  
etzera ondo portatzen:  
ardo geixio eman zaidazu,  
ez det geiago eskatzen.

Emen izaten det otordua  
eta oiaren epela,  
ikusten nago gaur morroi asko  
ondaturikan gaudela;  
otorduetan portatzen zera  
txakurra banitz bezela,  
ta ez al dakizu Jaunan aurrean  
danok anai geradela?

Emen uzten det nere izerdiya,  
emen uzten det indarra,  
nerekin ze ite'zun ikusita  
etorritzen zait negarra;  
ardo eskasiya otorduetan  
eta sobrante pitarra,  
martxa onetan aziko zaizkit  
illia eta bizarra.

\* \* \*

Jose Ayerbe-k: Orain Uztapideri beste gai bat jarriko diot. Zu izango zera, egin zagun kontu ala zerala, lau urteko ume-txo bat. Zuk dituzu laguntxo batzuk, zurekin jolasten ibiltzen diran lagunak, ikastolara joaten diranak, eta euskeraz ederki egiten dute. Eta zuk ez dakizu euskeraz. Baño ikasteko gogoia daukazu, ta zure aitari esaten diozu ikastolara joan nai dezula, euskeraz ikasteko. Zure gurasoak emen jaioak dira, euskaldun jatorrak, emen jaioak; bañan zure aitak esaten dizu ezetz, eztuela nai olakorik. Aber zer esaten diezun zuk guraso oieri:

U.: Nere guraso maitagarriak,  
nai nuke adierazi  
nere aurtzaroan egarri batez  
nola naizen emen bizi;  
iñola al balitz ikastolara  
joaten nai nuke asi,  
olako izkuntza zoragarriya  
zergatikan ez ikasi?

Nik nere aurtxo lagun oieri  
euskeraz diet entzuten,  
eta tamalez oraindikan nik  
ez baidakit erantzuten;

oraiñ olako urte ederrak  
zergatikan utzi juten?  
Aita ta ama, pentsa zazute  
zer egiten dirazuten.

Izkuntza ori ikusitzen det  
nola dagueen jokuan,  
bertan ikasi ez bagentzake  
zer eingo dute kanpuan?  
Nik nai nukena ori ikasi  
eta mundu zear juan,  
presa alperrik egingo degu  
ura juanetakuan.

\* \* \*

Jose Ayerbe-k: Orain Zepairen txanda: Zepairen gaia au izango da: Zepai ta bere andregaiia. Egin zagun kontu atzo alkarrekin egondu zirala ta emen junta-tzekotan gelditu zirala, onera etortzekotan biak, emen alkar ikusteko. Baita etorri ere bat bezela bestea. Baño or azaldu zaio andregaiia, orain arte gona motx-motxakin ibili dana, lurra jotzera-ñoako ainbesteko gonakin. Or ixkiñan zegola ikusi du; ez dio kasorik egin, eta bere artean esan du: Barrena joaten naizenean entzungo dituzu orratik zereak! Aber zer esaten diozun.

Z.: Denbora asko etzan izketan  
gauzia pranko jakinda,  
nola nitezke nik ondo esan  
gaur itzegiten ekinda?  
Egun batetik bestera dagon  
diperentziya ezin da,  
gaur nik ez dizut kasorik egin  
atzo motzakin izinda. (1)

Zenbat persona gelditzen da gaur  
gauza oiekin zapuztuta,  
ta ez dakiten bakar batzuek  
egongo dira poztuta;  
pobretu diran ez dakigu guk  
dauden aberastuta,  
bi pare orain luziarekin  
erdi-erdian moztuta.

Leno ziñaden erdizkakua,  
gaur etorriya osorik,  
gona luziak soñian eta  
ezin botarik pausorik,  
zuk ez baidezu estimatutzen  
nobiyo ta gurasorik;  
gona oriyek moztu itzazu,  
ez dizut eingo kasorik!

\* \* \*

---

(1) Izinda: izanda. Urola aldean orrela esaten da askotan.

Jose Ayerbe-k: Orain irurak alkarrekin egingo dute; bakoitzari bere eginkizuna jarri ta irurak alkarrekin. Ola izango dute beren eginkizuna: Zepai ta Uztapide bi anai mutilzarrak, alkarrekin bizi diradenak; eta Arozamena izango da berakin dagoan neskamea. Zepaik dauzka irurogei urte; Uztapidek berrogei ta bost; Arozamena-k ogei ta amar urte. Ta emen gertatzen dana, eztakit Zepai mutilzarraren iduripena izango dan ala ez, bañan bera errezelo txarra artuta dago. Iduritzen zaio bere anai gazteari obeto atenditzen diola neskameak, azkarrago joaten zaiola deituta koan, da gauzak txukunago jarri. Badi-teke ere anai gaztea txukunagoa izatea berez, eta beste a zabarxeagoa izate-edo. Or dira kontuak! Beintzat egun batean or ekiten dio mutilzarrak, zarrenak, neskameari erritan: aber beste anaiak geiago pagatzen dion edo zer pasatzen dan. Biak erdibana pagatuta daukate, neskamea erdibana pagatzen dute.

Lenbizi kantatuko du Zepaik; gero neskameak erantzungo dio; eta irugarrena Uztapidek, pakeak egitearren-edo etortzen dana.

Z.: Aizu, neskatxa, pentsatutzen det  
orain zuri ekitia,  
ez-jakiñian baldin bazaude  
ori on da jakitia:  
antzeman dizut nere anaia  
oso dezula maitia,  
ni naiz oraindik danen nagusi,  
kontuz ibilli zaitia!

A.: Mutilzarraren arrazoia da  
mundu onetan jakiña:  
bere anaiakin ikustea  
orrek emate'io miña;  
urtietan e aurrera zuaz,  
gañera zaude zikiña,  
zuri kaso geio egingo nizun  
polita izan baziña.

U.: Neskame orrek ikusitzen du  
nere anaiaren planta:  
reuma gogorak lotu du eta  
ezin mogitu du anka;  
neri obeto begiratzia  
dauka arrazoi galanta,  
diru geiena anaiak baño  
onek bearrena falta.

Z.: Aizu, neskatxa, ni baño geio  
gustatzen zazu bestia,  
gure senire danak onekin  
oso kontentu ezia;  
nei galerazi eta bedorrek  
artu ber zul'emaztia,  
berrogei eta amabost ditu,  
au're ez dago gaztia.

A.: Begira, lagun, gaur ez nijua  
ni bestetara iñuna,  
naiz-et'anaiangatik zuk neri  
jarri kopeta illuna.  
Esaten dezu: «Ni naiz nagusi,  
nik dadukat ondasuna!»  
Uste al dezu dirun dagola  
munduko maitetasuna?

U.: Neskamia, nik maitatzen zaitut,  
eta patxaran egondu;  
nagusiari kaso egin gabe  
ez al giñezke konpondu?  
Nik oraindikan sasoiak daukat  
eta zindezket mantendu;  
onek zertako baliyo ez ta  
zertan onekin ezkondu?

Z.: Aizak, *hermano*, nere itzakin  
jarriko aut mantenduta:  
neskame ori gaztia ziok,  
orrek nai dik ezkondata;  
iretzat eta neretzat berriz  
ziok naiko berandu-ta,  
gauzaren jabe ein nai du onek  
eskubidiak kenduta.

A.: Gaur bezelaxe itzeiten zendun  
anaiangatik lenguan,  
baña nik ori maitatutzen det,  
sartuta daukat buruan;  
zu bezelako agure zar bat  
artutzen badet onduan,  
zere denboran ibil bearko'zu  
Onassis zarran moduan.

U.: Reuma puxkat e badauka eta  
memoriya txit ariña,  
askotan ola ibillitzen da  
eguaiziak eragiña,  
moxkortu ere egiten da ta  
askotan erdi zikiña...  
Alper-alperrik abill, anaia,  
tratua ziok egiña!

\* \* \*



Jose Ayerbe-k: Berriro irurak alkarrekin egingo dute; bañan iru bizimodu desberdiñak izango dituzte irurak: Arozamena izango da mutilzarra, Uztapide ezkondua, ta Zepai apaiza. Askotan gertatzen dana, geure bizimoduarekin ez gera kontentu izaten; beti besteak obeto dirala edo beti besteri inbiriya izaten diegu. Ta e m e n mutilzarra, ezkondu izan bazan edo ezkondu naiago, inbiritan, ezkondu izan balitz; ezkondua, berriz, mutilzar geratu izan balitz; ta apaizak ere izango du zerbait esateko. Oso gustora daudenik ez dute ematen, itzak artuta. Asera emango du mutilzarrak, Arozamena-k. Iruna bertso. Eta esango dute zergatik ez dauden konforme ta zer izatea nai zutekean: edo apaiza, edo ezkondua, edo... berak esango dute.

A.: Ontâ ezkerro zerbait esaten  
bear genduke gaur asi,  
ta, apaiz maitia, zui esan gabe  
ez naiz juango igesi:  
lengo batian pasiatutzen  
kalian zaitut ikusi,  
biok mutilzar gerade baña  
ez gerade berdin bizi.

U.: Etxetik erten baño lenago  
artzen ditugu ordenak,  
emakumeak nola diraden  
oso kristau nabarmenak;  
parranda pixkat egin nai guk da  
galerazi eta penak,  
gauz orren berri ez dakizute  
ezkondu etzeratenak.

Z.: Ni apaiza naiz, geldi eoteko  
eztit ematen gogorik,  
esanda baño ez det egingo  
iñola obra oberik:  
ezkondu ta solteruak ez dute  
relejiyo-kolorerik,  
apaizik-ezian etzun artuko  
matrimoniyo santurik.

A.: Apaiz maitea, au esateko  
ematen dit nei goguak:  
pixkat narrastuk ikusten ditut  
ezkonduaren barruak;  
ez al dakizu zer diperentzi  
eginda daukan munduak?  
Gaur egunian amaika baida  
apaizik gabe ezkonduak.

U.: Apaiz jaun onen lantegia da  
aldarea ta korua,  
prediku batzuk guri eginda  
seguru bizimorua;  
lanik txarrena izan lezake  
irabazitzen zerua,  
baña karrera ori egin duna  
ez da ziara erua.

Z.: Pentsatzen nuan asierako  
zer esan biar zenduan,  
apaizagatik gaizki esaka  
bizi zerade munduan;  
ta, badakizu, etzera bizi  
oso toki seguruan:  
zalapartaka apaizan billa  
eriotzako orduan.

A.: Ez det esaten txarra zerala  
ta gutxiago kirtena,  
baña bertsua kantatu bear  
oraintxen apaiz batena:  
b'al dakizute ointzako zer dan  
munduko lanik txarrena?  
Beste guziaz sinixtu-azten  
berak egite'ez dutena.

U.: Ai, apaiz jauna, orrek esan du  
zu ere estu zaudela,  
sinixte'ztiran gauzak munduan  
asko jarrita daudela;  
apaizak ere etzazu esan  
guziak onak direla,  
gai onarekin egin bear da  
zerri-odolkiya bezela.

Z.: Galdu generala iruritzen zat  
Kristoren lege zuzenez,  
ni gonbertitu nai naute emen  
baña jardunez-jardunez;  
eztitut abek eskramentatzen  
relejiyoko esanez,  
zuk b'al dakizu dotriña ori  
siñixten detan edo ez?

\* \* \*

Jose Ayerbe-k: Orain, bukatzeko, gai  
berarekin irurak bertso bana kantatuko  
dute: zer eskatuko zenio teke San Ina-  
ziori Euskalerrirako? Asera eman lezake  
Uztapidek:

U.: Neri entzun-zai zaudete zuek  
nik pentsatu bitartian,  
makiñatxo bat gauzaren falta  
bada Euskalerrri-partian;  
baña nik auxen eskatuko'iot  
agoa bete-betian:  
urrungo urtian juntatutzeko  
gu danok emen batian.

Z.: Bizi geranak mundu ontatik  
eman biarra mugira,  
urrungo urtian etortzeko're  
eska zaiogun sikira,  
osasunakin jardun dezagun  
emen kantatu ta tira;  
edo bestela eaman gaitzala  
bera dagueen tokira. (2)

A.: Muitu ditugu mingañaak eta  
muitu ditugu eztarrîk,  
San Inazioi berotu naian  
nabilla ni're belarrîk:  
gure artean etzazu jarri  
okerra edo negarrîk,  
pake santua eskatutzen det,  
ezteu geiagon biarrîk.

---

(2) Etorkizunaren berri bazekiala ematen du. Len esan bezela, Zepai Uztaillaren 24an il zan, San Inazioren bederatziruurenean alegia. Esan diteke, beraz, San Inaziok Zepaik eskatu bezela egin zuala: here egunerako "bera dagoen tokira" eramán.

## ZEPAI ZANARI

### AROZAMENA-K (1)

1/ Zepai bertsolariya,  
Akilino izenez,  
zu nolakua ziñan  
ezta esaten errez;  
bertso batzuk jartzia  
zure oroimenez:  
gure euskal baratza  
jantzi zendun lorez,  
ta orain utzi gaituzu  
semeak negarrez.

2/ Errezilko semea  
Akilino zana,  
Euskalerra guziyak  
maitatzen zuana;  
gauz bat da esatia ta  
bestea izana,  
beñere ezta aztuko  
egin zendun lana,  
amaika egi eder  
munduan esana.

---

(1) Arozamena-k bertso auek kantatu zituan Loiolako erri-irratitik, Zepai il da laister. Arozamena-rena ez-ezik, gañontzeko bertsolari guzien naigabea ere erakusten digute. Orregatik jarri nai izan ditugu liburuaren bukaeran.

3/ Uztailak ogei ta bost,  
Santiyo-eguna,  
zure eriyotzan berri  
jakindu genduna;  
biyotzetikan nizun  
nik maitetasuna,  
ezin sinisturikan  
ura estuasuna,  
mundutik juan zalako  
guziyon laguna!

4/ Gaizki xamar zeundela  
jakindu genduan,  
nunbait gaitza txarren bat  
zeukazun barruan;  
bañan lenengo gauza  
au pensatu nuan,  
poza bat sarturikan  
biyotzan barruan:  
egongo ziñalako  
Jaunaren onduan.

5/ Pensaturik biyotza  
liteke erdibitu,  
munduan zenbat zuan  
Zepaiek supritu;  
euskara zabaldurik  
mundua korritu,  
ta agintzen ziyotena  
biyotzez serbitu,  
Jaunak e olakuak  
maitatutzen ditu.

- 6/ Txapel eta Saiburu  
eta Txirritakin,  
Udarregi gañera  
Prantzes-Txikiyakin,  
Otaño're or dago  
Pello Errotakin,  
Gaztelu're onduan  
jaun Xenpelarrekin,  
kantatuko dezute  
danak alkarrekin.
- 7/ Omenaldi bat zendun  
ondo mereziya,  
nik bezelaxe geiok  
degu ikusiya;  
lar gaizto bat daukagu  
gorputzen josiya,  
il da gero egitea  
gauza itxusiya,  
barkatuko al dezu  
buru-eskasiya!
- 8/ Orain zeruan zaude  
gozotasunian,  
emen supritu eta  
or zorionian;  
gu're laister gaituzu  
zure aldamenian,  
auxen eskatzen dizut  
azken-azkenian:  
bidera irten zaitetz  
aruntz guazenian.



## ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. R. Artola: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. M. Soroa: Gabon, Au ostatubal, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. F. Apalategi: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. Pepe Artola: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. P. M. Urruzuno: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. T. Alzaga: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. R. Azkarate: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. A. Apaolaza: Patxiko Txerren.
9. B. Iraola: Oroitzak.
10. Errege eguneko bertso sayoa (1962). (*Aitua*).
11. P. Larzabal: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. Bilintx: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. M. Izeta: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. P. Larzabal: Iru ziren.
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I.
16. A. M.<sup>a</sup> Zabala: Gabon gau bat.
17. A. M.<sup>a</sup> Labayen: Malentxo alargun!
- 18-19. A. Zavala: Txirrita. (*Aitua*).
20. F. Goñi: Lurdesko gertaerak.
21. P. Larzabal: Herriko bozak.
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962).
23. Aizkolariak.
24. F. Imaz: Bertso guziak.
25. A. P. Iturriaga: Jolasak.
26. A. M.<sup>a</sup> Zabala, A. Larraitz, Mir: Periyaren zalapartak.
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. B. A. Mogel: Ipui onak.
29. T. Alzaga: Burruntziya.
30. G. Anduaga: Egunsentiko txoria.
31. M. Soroa: Baratzen.


32. *M. Elicegui, A. Zavala*: Pello Errotaren bizitza.
33. *M. Elicegui, A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak.
34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara.
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak.
38. *S. Salaverria*: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak.
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa.
42. *Uztapide*: Noizbait.
43. Bertsolari-txapelketa (1-I-1965).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu.
- 45-46. *J. M. Satrústegui*: Bordel bertsolaria.
47. *P. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra.
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala.
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak.
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma.
54. *A. Zavala*: Fernando Amezketarra bertsolaria.
55. *Basarri*: Laugarren txinparta.
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsolaria.
- 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea.
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria.
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari.
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsolaria.
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria.
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. *J. M. Satrústegui*: Luzaide'ko kantiak.
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari.
67. Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak.
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari.
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere laguneren bertsoak.
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsolaria.
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak.

84. *M. Matxain*: Uste gabea.
85. *Xalbador*: Ezin bertzean.
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90. *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria.
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria.
92. *I. Alkain* — *A. Zavala*: Alkain aita-semeak.
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak.
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak.
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari.
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka.
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I.
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II.
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi-gañetik.
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela. — Ezkioko ta Segurako itxuak.
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria.



1027971

JB-960



AUSPOA  
LIBURUTEGIA

JL

IMPRESO EN ESPAÑA